


15111K 14

Pedagogi Aldizkaria-1991-400pzta

EUSKARAREN LEHEN LURRALDEAK MAPA HURBILEKOA



Elkar Lanean (1979); Hizkuntz Borroka Euskal Herrian, Bilbo. EUSKALTZANDIA.E.V.

SOZIOLINGUISTIKA (Lehen Urratsak)

SOZIOLINGUISTIKA

zertarako ??

SARRERA

Jende askok daki gure herrian euskara ez dela hizkuntza erromanikoa; ergatiboa duen beste hizkuntza bat aurkitzekotan, Europatik irten eta, Asia edo Ameriketaraino jo behar dela; gure adizkiek, Europako joeratik at berriz ere, NOR-NORI-NORK famatuak batera integraturik dauzkatenez gero, euskal aditza erabiltzea zail gertatzen zaiela erdaldunei, e.a.

Orain dela gutxi arte, ordea, oso jende gutxi arduratu da euskaldunen artean hizkuntzen erabilpenaren gorabeheraz.

Hots, Gramatikak hizkuntzen egitura azaltzen duen bezalaxe, Soziolinguistika deritzon zientzi adar berriak, hizkuntzen erabilpena (edo erabili-ezina) azaltzen du.

Erabiltzen ez den hizkuntza; horra hizkuntza hila. Eta alderantziz, Euskal Herriaren etorkizunerako, beraz, funtsezko jakintza da Soziolinguistika.

Oso onuragarria da beraz, diglosiaren arazoa, hizkera batu edo standardaren arazoa, lege-saila, eta abar, beren hizkuntza arriskutan izan dituzten herriek nola gainditu zituzten ikustea. Mailaketa horretan hebraiera (Israel) eta gaelikoa (Irlandan) dira bi muturrak. Non gaude gu eta geure euskara? Hauxe izango litzateke liburuska honetako muina.

TXILLARDEGI.

OHARRA: Aldez aurretik jakin beza irakurleak, hitzaldiok, Txillardegiren aho-hizkeran emanik doazela eta ez artikulatu idatzi gisan; askoz ere bizitasun handiagoa agertzen bait dute.

Irakasle Elkarte

174 5888
VR-02818

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO
76890
1992 MAL 22

HIZKUNTZEN EGOERA NATURALA.

(Isoglosak, Dialektoak, Ordezkapena, Standardizazioa, Plangintza)

Euskal Herri honetan gramatikari pila bat izan eta dugu oraindik, jakingo duzuen bezala. Oso normala baita, euskaldun bakoitzak bere euskaldun izena merezi ahal izateko edo, bere gramatikatxoa egitea. Eta hori berez ez da txarra baina, hemen beste arazo bat gertatu da, hots, gramatika arau emaile asko agertu zaizkigula; nola egin beharko litzatekeen adieraziz, baina oso azterketa zientifiko gutxi eginez.

Guzti hau oso normala da, hain zuzen ere L. ARACIL-ek dioenez, gure Herrian Elizaren eragina hain handia denez oso normala omen horrelakorik gertatzea eta adibide hau ematen du: "Jaungoikoak deitu zion halako batetan Moisesi eta goitik behera esan zion, Hau da Legea, orduan Moises jeitsi zen harriarekin, etabar, etabar... Hau da, goitik beherako joera hori Elizaren bidez etorri zaigula eta, joera hau zientzietan ere oso nabarmena omen, eta gramatika kontutan zer esanik ez. Modelo bat definitu eta gero autorizaturik dagoen jendeak (apaizak normalki) jende-ari saltzea; nola egin behar den alegia.

Eta behinere edo oso gutxitan egin da alderantziz, hots, behetik gora, eta hain zuzen ere Soziolinguistikaren eginkizuna hori da: **Hizkuntzaren egoera ikusi nola dagoen eta behetik gora aztertuz, nola berreskura edo berregitura daitekeen.**

Beraz, planteiamendu hau guztiz desberdina da. Eta gainera, gramatika deskribatzaille bat izan balitz, bada, gaitzerdi, zeren gramatika deskribatzailea ere zientifikoa izango bait litzateke leku batera joan eta ikusi jendeak nola esaten duen,...

Gramatiketan aldiz, ez, denak paradigmak izaten dira (ez entzuten dena gramatiketan

agertzen dena baizik) nolabait esateko, pentsamendu paradigmatico hori hemen oso modan egon ohi da beti eta oso sakonean sarturik daukagu guztiok Euskal Herrian.

Eta guzti horren aurka joan beharra dugu eta hizkuntza abstraktoki ikusi ordez, bada garaia ikusteko hizkuntza nola gertatzen den hiztunen munduan eta gizartean orohar. Eta Soziolinguistikak duen joera berri hau, ez dut uste Euskal Herrian eman denik orain arte. Piskanaka hasia da baina ez da izango tximista bezala jakina, prozesu bat baizik. Eta prozesu horretan gaude. Jendea konturatzen hasia da jadanik, hizkuntzaren arazoa ez dela gramatika arazoa bakarrik, baizik eta Herri baten hizkuntza dela arazoa, eta ez gero liburuetan geratuko den hizkuntza, zeren hizkuntza hori gero jendeak ez badu erabiliko, ez bait dugu deus konponduko, eta hori da arazoa.

Eta Soziolinguistikak hori aztertzen du; Hizkuntza pertsonengan eta gizarteetan, hain zuzen. Honaino lehenengo puntua, eta Soziolinguistikaren lehenengo kapitulura sartuko gara, hots, **Hizkuntzak nola dauden munduan, nola etorri diren guganaino konturatzea, alegia.** Eta lehenik, guzti hori ulertzeko ISOGLOSAren ideia ikusi beharko genuke.

ZER DA ISOGLOSA?

Soziolinguistika funtsatzen duen ideia nagusia, hitz batez, muga linguistikoa da. Eta Dialektologia hasi zenean sortu zen ISOGLOSA, eta Euskal Herrian denak piska bat gramatikariak garenez gero, isoglosak guretzat oso errazak dira, oharkabean eta ohituta gaudelako edo, diferentziak ikusten ditugu gure hizkuntzan, adib., aski dugu hemendik ateratzea, Hernanitik atera eta Urdaburu inguruetan aldiz, ERRAN esaten dutela ikusteko. Horrek zer adierazten digu? Hor muga

linguistikoa dela; administratiboki Gipuzkoa izan arren, linguistikoki Nafarroa delako.

ERRAN/ESAN dela eta inkesta bat egi-ten badugu, demagun Hernanitik Nafarroa aldera abiatuz gero, ondoren Berastegitik Nafarrorantz, Leitze edo Jaunsaras edo inguru horretara eta gero, Altsasutik behe-rago, eta Iparraldera berdin, bada, hor aur-kituko genukeena zera da isoglosa bat.

Hori izango litzateke beraz, isoglosa bat, hau da, **ERRAN/ESAN-en arteko muga markatzen duten puntuek osatzen duten lerroa hain zuzen ere izango litzateke ISOGLOSA.**

Hori ikusirik, goazen bada beste adibide bat ikustera, **BESTE/BERTZE** adib. Gauza bera egingo dugu inkesta baten bidez galdetuz, eta hemen ere beste isoglosa bat aterako zaigu, hots, "Beste/Bertze" bereiziko dituen muga linguistikoa.

Gerta daiteke behar bada, (eta hau oso inportantea da) bi isoglosak muga politikoak bezalakoak ez direnez, normalki leku desberdinetatik pasatzea eta hau ez da Euskal Herrian bakarrik gertatzen den

fenomenoa, beste Herrialdeetan ere gauza bera gertatzen baita (ikus, Ingalterra, Frantzia, Belgika, e.a.). Mundu guztian ematen den fenomenoa dela ez dezagun ahantz.

Beraz, isoglosa guzti horiek horrelako zer-bait osatuko lukete; behar bada zenbait puntutan batu bezala egingo dira baina, gero zabalduz joango lirateke, eta hor muga bat baino gehiago, eskualde bat agertuko da, transizioko eskualde bat.

Orduan, hemen ikusten dugu muga politiko eta linguistikoen arteko diferentzia, hau da, muga politikoak konkretoak, zehatzak direla eta linguistikoa aldiz, zabalagoak.

Gero zenbait lekutan, demagun mendi handi bat edo, ibai bat edo horrelako fenomeno geografiko garrantzitsu bat baldin badago, hor batu egiten dira, zergatik? Hor muga naturala dagoelako, eta muga naturalarekin ere azkartu egiten dira muga linguistikoa, ondorioz, isoglosak batu egiten direlarik.

Baina ez badago arazo geografiko garrantzitsurik, gerta daiteke isoglosak bapatean



zabaltzea eta orduan, transizioko eskualde handi batetan bilakatzea, eta Euskal Herrian ere berdin gertatzen da.

Orduan isoglosak horrela pasatzen badira (ikus mapa) eta mapan horrelako zerbait gertatzen bada (Nafarrera/Gipuzkera) honoko honetaz ohartuko gara, isoglosa arazo hau dela eta, DIALEKTOAK sortuko zaizkigula, alegia.

Isoglosa asko pasatzen badira leku beretik muga bat sortuko da, zabalago edo hestua-go.

Dialektoari **EUSKALKI** deitzea, Azkuek duela 60ren bat urte proposaturikoa da eta badirudi onartua dagoela, bertako dialektoaz iharduten garenean; kanpokoak beti dialektoak izango baitira.


Beraz, dialektoen arteko muga garbi gelditzen da ez dela lerro bat, eskualde bat baizik. Eta askotan halako desadostasun logiko bat gertatzen da; dialektoak eta isoglosak ez datozelako bat.

Horrek zer esan nahi du beraz? Bada, dialektoak oso errelatiboak direla, arrazoin logikoarengatik, eta hau oso inportantea da.

Isoglosek bereizten dituzten eskualde horietakoak euskalkiak baldin badira, horrelako fenomenoetan dialekto ideiak ez du zentzurik; beraz, esaten digutenean el vizcaino está siendo marginado, horrek ez du deus adierazten, arestian aipaturiko zentzu horretan.

Beste arazoa, eta gauzak okerrago jarri dituen zera da: **BIMORFISMOA ETA POLIMORFISMOA**. Planteiamendu geografiko hauetan (GEOLINGUISTIKA izango bait litzateke azken finean, demagun etxe batean aita hernaniarra dela eta ama lesakarra, bada, **bi formok entzuteari esaten zaio BIMORFISMOA**.

Bimorfismo hori lehen oso gutxi ematen zen, jendea orain baino gutxiago mogitzen zelako (auzo bereko edota, herri berekoen artean ezkontzen zirelako,...). Baina mundu modernoan, gero eta maizago gertatzen da eta horrek ondorio linguistikoak ditu, zeren eta horren esan nahi baitu, bakoitzak bere hizkera dakarrela eta norberak bere joera sartzen duela oharkabean. Orduan, hizkuntza mailan lehen zegoen da.



batasun hori gaur egun gero eta gutxiago-tuz doa. Eta Euskal Herrian ere fenomeno bera dugu, eta inkesta bat eginez gero, ikusiko genuke gure artean **POLIMORFISMOa** dagoela; behar bada, polimorfismo pasiboa.

Beraz, bimorfismoa edo polimorfismoa mundu modernoan oso hedaturik dagoen fenomeno da eta lehen ez, lekuan lekuko hizkera egiten zen, baina gaur egun ez, eta gero eta gutxiago.

Une honetan pentsatu besterik ez dago zer gertatzen den eskolan. Orain haurrak autobusetan atera eta ikastetxeetara eramaten dituzte; orduan haur horiek etxetik dakarten euskara eta eskolan ikasiko dutena oso desberdinak dira askotan, eta nahigabe halako nahaste borrhaste bat sortuko zaie; hor ere bimorfismoa sortuz.


Beste arazo larriago bat aipatzez gero, hauxe; duela ehun urte hemengo zibilizazioa nahiko baserritarra zen, jendea oraindik ere herri txiki edo baserrietan bizi zen eta ez zegoen hiri handirik. Une hauetan aldiz, kaletarkuntza edo gizartearen hiritarkuntza gertatu da eta oraindik bukatze-

ke dago, gero eta gehiagotzen doalarik. Beraz, hiritarkuntzarekin batera **SOZIOLEKTO**aren fenomenoaz azaldu da. Adib., Langabezian dagoen goizuetar bat Donostiara etorri da bizitzera eta albo-ko etxebizitzan lekeitiar bat bizi da; behekoan aldiz, baztandar bat, e.a., e.a.,... Inmueble horietan isoglosa hori nondik pasatzen da? Zer sentidu du isoglosa horrek kaleari buruz? Mendialdean bai, baina Donostiako edozein kaletako etxe batetan ez.

Isoglosa beraz, oso errelatiboa da une hauetan, duela ehun urte balio zezakeen baina gaur egun ez. Hori bukatu da, eta dialekto ideia horrekin lotuta, beste ideia bat sortu da arestian aipaturiko **SOZIOLEKTO**aren ideia, alegia.

ZER DA SOZIOLEKTOA?

Hiri handietako jende klase sozialaren araberakoa izaten da jendearen hizkera ere. Burgesak eta auzo dotoretako jendearen hizkera eta berauen neskame - morroiek egiten dutena (etxe berberean biziarren), ez da hizkera bera izaten; orduan, muga soziala delarik. Hortik dator soziolektoa-



ren ideia sortzea. Euskal Herrian ere nolabait esateko, eta maila batean, antzeko zer-bait gertatzen da (Esaidak/n zer klase sozialetakoa haizen eta esango diat/dinat nola hitzegiten duan/dunan). Hemen arrantzaleak eta eta baserritarrak direla euskaldunak baldin badakigu, Negurin euskararik ez dela egingo ere jakingo dugu, (eta ez da kasu geografikoa) zeren eta, Negurin Amorotoko neskameren bat baldin bada, honek euskaraz egingo du, beraz, klase sozialaren arabera, modu batera edo bestera hitzegingo du, edota, hizkuntza batean ala bestean; orduan honek ere frenatu egiten du dialektoen ideia.

Hitz batez, hizkuntzak praktikan nola gertatzen diren jakiteko, une honetan, badago dialektoen ideia eta hori, **SAILKAPEN GEOGRAFIKOA** da orain arte aipaturiko "zailtasun" guzti horiekin eta gaindiezinak, gainera). Herri handietan aldiz, sozioklektoen ideia sortu da (hizkuntza klase sozial bakoitzaren arabera, alegia) eta horren ondorioz berriz, beste ideia bat atera delarik; **pertsona bakoitzak bere modura hitzegiten duela**. Adib.; Aparailuen bitartez aztertzen bada hemen gaudenon "S" a esate baterako, eta espektograma bat eginez gero, mila arazorengatik, "S" guzti horiek nahiko desberdinak izango lirake.

Honek esan nahi du "S"aren mailan ere, **bakoitzak bere idiolekto pertsonalak ditugula**.

Halaz ere, eta funtsean idiolektoak desberdinak izan arren, gutxi gora beherako parametroen arabera sailka daitezke bai pertsonak, dialektoak, edota sozioklektoak behar bada, eta orduan ikusiko genuke oso errelatiboa gertatzen dela azkenean dialektoaren ideia.

Beste argudio bat eta goikoa baino inportanteagoa (eta mila kritika egin daitezke oraindik); orain aipaturiko isoglosa itxuraz behintzat, fonologikoa da, egia esateko, "S" eta "R" gonbaratzen ari gara, fonema baten ahozkerari buruzkoa, alegia.

"DET" eta "DUT" hartuz gero aldiz, isoglosa hori morfologikoa izango litzateke. Beraz, isoglosak maila desberdinetakoak izan daitezke, hots, isoglosa fonologikoak; isoglosa morfosintaktikoak, isoglosa lexicak, e.a....

Zernolako garrantzia eman behar zaio isoglosa bakoitzari? Hemen soluziorik gabeko arazo batekin topatzen gara, zeren eta, inork ez bait daki nola baloratu behar diren isoglosak. Zeren eta, isoglosa bat halako leku batetik pasatzen bada eta beste isoglosa bat bestetik, zein da bietan inportanteena? Inork ez daki.

Alde batetik, pentsa liteke **elkar-ulerkuntza** (intercomprensión) izan daitekeela erizpide on bat. Esate baterako, isoglosa batek ez badu zailtzen elkar ulertzea, orduan isoglosa hori ez da oso inportantea izango eta alderantziz, hots, zailduko balu garrantzizkoa izango litzateke, eta arazoa larriagoa denez, beste koefiziente bat eman beharko zaio isoglosa horri.

ARAZOAK.

Zeintzu dira arazo horiek? Zenbat balio dute orduan, **DET/DUT** eta **ERRAN/ESAN** isoglosek? Hemen ere ez dugu erantzunik. Nahiz eta mapak hemen izan, hori nola baloratu behar den inork ez daki eta ez Euskal Herrian bakarrik, ezta mundu guztian ere.

Baztango eta Lapurdiko euskara esate baterako oso antzekoak dira. Zer diferentzia duten? Badirudi, diferentzia bakarra "H"aren arazoa dela. Orduan, hori oso inportantea al da? Inork ez daki, zeren eta, Elizondon eta Azkainen oso berdintsu hitzegiten bait dute Orduan, "H"arengatik zenbat ematen zaio? Ezin da esan, eta froga da, **BONAPARTE** zalantza gorritan ibili zela ez zekielako zer egin horrekin, hau da, Baztango euskara Nafarrerarekin jarri ala Lapurterarekin, zergatik? Ezzekielako nola kontatu. Aditzari buruz,

berdina da dudarik gabe, baina fonologia aldetik, "H"ari buruz ez. Orduan zer? H-rik ez izatea oso larria al da? Inork ez daki, MITXELENak ezta ere; hor zalantzak izan ditu eta beti esan izan du, berak sailkapen batzutan BONAPARTEk izan zituen arazo berberak izango lituzkeela eta galdetuko balioke Baztango euskara zergatik ez duen jartzen Lapurterarekin eta zergatik Nafarrerarekin bai, BONAPARTEk egin zuen gisa? Ez dakiela.

Beraz, guzti hau azkenean, sekulako arazoa da. Orain arte ikusi dugunez, hori da egoera eta, Euskal Herrian arazo bera dugu eta une honetan Euskal Herrian zenbat euskalki dagoen galdetzen baldin bada, eta lehen esan dizuedan arrazoin horiek kontutan hartzen baditugu, ez dakigu.

Baina badugu beste irtenbide on bat BONAPARTE Printzeak esan zuenez (8) zortzi euskalki omen dira. Hori izan daiteke soluzio bat. Zergatik?

BONAPARTE izan delako euskal dialektologian isoglosa hauek seriooki bilatzen ibili den lehendabiziko pertsona.

Baina gero AZKUE etorri zen eta honen ustetan gauza batzuek alda zitezkeenez, zazpi (7) euskalki zirela esan zuen, eta


gaur egun hori ukatzeko beste arrazoin handiagorik ez dagoenez, zazpi direla esaten da, MITXELENA barne.

Hauek dira AZKUEk proposatzen dituenak; **BIZKAIERA-GIPUZKERA-LAPURTERA-ZUBERERA-BEHENAFARRERA-GOI-NAFARRERA eta ERRONKARIERA.**

Eta BONAPARTEk zortzi bereizten bazituen zen, **BEHENAFARRERA (EKIALDEKOA ETA MENDEBALDEKOA) eta NAFARRERA (IPAR-NAFARRERA eta HEGO-NAFARRERA)** sailkatzen zituelako eta **ERRONKARIERA** aldiz, **ZUBERERAREkin** elkartuz.

Hemen beraz, badirudi izugarritzko nahaste-borrastea dagoela hainbeste euskalkirekin. Japonen berriz, hogeitabederatzi dialekto omen. Honekin adierazi nahi dudana zera da; mundu guztian gertatzen dela horrelako kasurik.

Beraz, gure arteko hau normala da. Dena den, esan behar da baita ere, euskaldunok hain gutxi izanik, diferentzia hauek izatea nahiko larria bada ere, ez dugula larritu behar.



Adibideak aipatzekotan:

Kaukason, indoeuropeoak (armenioa, kurdo, ...) kontatuz gero berrogeitik gora dira eta Kaukaso Pirinioen tamainakoa da, gutxi gora behera eta bertan, batere antzik ez duten berrogeitaka hizkuntz hitzegiten dira. Beraz, Kaukason egiten diren hizkuntza gehienak Kaukasikoak dira eta gutxi batzu (hiruzpalau) indoeuropeoak izanik, erabat desberdinak dira. Egoera hori ikusirik, proportzioan gu ez gaude hain gaizki.

Nigerian (80 milioe biztanle) aldiz, hirurehun hizkuntza hitzegiten direla kalkulatzen da, beraz, egoera okerragoak ere badaude.

Ginea Berrian (2 miloe biztanle) kalkulatzen da zazpirehun hizkuntza hitzegiten direla, inork ez bait daki zenbat diren.

.. ETA AZKENIK;

Beraz, gure egoera ere ez dago hain gaizki, zeren, azken finean, hemengo zortzi euskalkiak ez bait dira hain desberdinak ere (guztio elkar ulertzen dugu) eta ez da hainbestearainoko arazoa. Euskal Herrian euskaldunok benetan bizitzeko proiektu

bat baldin badago (ez edozein nazio-proiektu, noski) eta ez badugu elkar ulertzen, batzuetan txisteak egin beharrean aurkituko gara (adib.; batek ilarrak eskatu eta besteak babarrunak atera) edota, erdarara joko dugu.

Baina hori ez daiteke onar proiektu nazional batean. Proiektu nazional batean elkar ulertu behar dugu eta elkar ulertzeko egoera hau ezinezkoa da; hori batasun bat bilatu behar da. Horregatik diot: Ez badago nazio-proiekturik eta ez badago benetan Euskal Herria, Herri bat bezala bere hizkuntzan eraikitze asmorik, hemendik bertatik esango nuke, nire hitzaldiok soberan leudekeela. Guk ez bait dezakegu Soziolinguistika egin amerikanoek egiten duten bezala, hots, abstrakzioetan hartu, eta fonetika aztertuko balute gisa aztertu. Hori ere egin beharrekoa izango da, baina gure kasua ez da hori; gure hizkuntza da eta ez da hizkuntza abstrakto bat.


Hortaz, hau guztia gainditu nahi badugu, horregatik da, proiektu bat dugulako alegia. Hain zuzen ere, **gure Herrian Euskara normalizatzeko proiektua**, (normalizatu diogunean, alor guztietan normalizatzea edota, normalki erabilia



izan dadila, esan nahi baita) eta noski, ez bada horrelako asmorik nik ez dut ikusten planteiamendu aldaketaren beharrik. Eta alderantziz, proiektu nazional horren beharrik ikusten ez dutenek, hots, Los vascos podemos seguir siendo vascos sin saber euskara ... eta horrelako planteiamendua dutenak, nik jadanik, baztertuak ditut, jende hori gure etsaia da eta kitto!

Nire ustez, gure Herria hizkuntzarik gabe ez da ezer eta gure hizkuntzaren planifikaziorik gabe eta euskalki hauek gainditu gabe, jai dugu!. Hori, argi eta garbi diot.

Beraz, egoera hau leku guztietan eman denez, eta gure hizkuntza normalizatzeko beste herrietan nola jokatu duten ikustera pasako ginateke, hemendik aurrera.



NAFARRERA BEHEREA.

P. de YRIZAR,-en *Contribución...* 1. maparen nafarrera beheari dagokionaren zati egokitua.

MUNDUAN DAGOEN ELEBITASUNA. DIGLOSIA

ELEBITASUNA eta DIGLOSIA nola presentatzen den munduan zehar ikusteko izango da lehenengo saio hau. Hortaz, bi hitzok azpimarratzera joko dugu, hots, Elebitasuna eta Diglosia.

Gauza hauek nahiko berriak dira eta ez pentsa, autore guztiak bat datozenik, hau da, segun eta nor eta non aldatu egiten direla, alegia.

Euskal Herrian ere badirudi gauzak zentratzen ari direla eta Elebitasuna jadanik badirudi onartuta dagoela, pertsonari dagokion zerbait dela, pertsonari buruzkoa, alegia. Beraz, elebitasuna pertsonari buruzko dohai bat izango da, pertsona batek bi hizkuntza edo gehiago hitzegiteko dohaia baldin badu, dohai horri deitzen zaio ELEBITASUNA.

Eta DIGLOSIA aldiz, gizarteari dagokion izango da, gizarteari buruzko egoera; hori da lehenengo gauza inportantea. Beraz, bata pertsonari buruzkoa eta bestea, gizarteari buruzkoa izango da. Honek esan nahi du beraz, zientzia aldetik bada, elebitasunaz SIKOLINGUISTIKA arduratuko dela eta SOZIOLINGUISTIKA aldiz, diglosiaz. Honek esan nahi du oso alor desberdinak direla, eta hori azpimarratu behar da behin eta berriz.

Orduan, ZER GERTATZEN DA PERTSONARI BURUZKO ELEBITASUNAZ.? Esperientziaz ongi dakigu elebitasun hori inoiz ez dela osoa. Esan nahi dut, adibidez, errolda begiratzean edota, lanpostu batetarako diotenean, "se necesita persona bilingüe"; Zer esan nahi da? Bi hizkuntza jakitea?, baina hori oso erlatiboa da, zeren, gerta bait daiteke pertsona batek euskaraz eta erdaraz ongi jakitea gauza normalei buruz hitzegiterakoan nolabait esateko, baina beste gai zailago bati buruz hitzegi-

ten hasten bagara, (matematikaz, sikologiaz, ekonomiaz edota, politikaz), pertsona hori nahiz eta elebiduna izan, erdaraz mintzatuko da. Hori askotan gertatzen da, horregatik da kontzeptu erlatiboa, pertsona elebiduna eta elebidun orekatua izatea gainera, oso zaila da, hots, pertsona batek edozein gauzari buruz berdin-berdin hitzegitea bi hizkuntzatan, praktikan ezinezkoa da.

Beraz, ELEBITASUN OREKATUA, ikusiko dugun bezala, azkenean, hori mito bat da ia-ia.

DIGLOSIAz gauza bera gertatzen da. Gizarte batean bi hizkuntza desberdin baldin badaude, bi hizkuntza horiek funtzio desberdinak betetzen dituztenean, DIGLOSIA dagoela esaten dugu. Baina gizarte elebidunaz hitzegiten dugunean, jende asko dagoela bi hizkuntza dakitzana; gizarte horretan bizi diren pertsonak elebidunak direlako edo, bestela, GIZARTEAK EZ DIRA INOIZ ELEBIDUNAK, PERTSONAK BAIZIK.

Orduan, beste gauza inportante bat aipatzekotan, elebidunak zein diren gizarte batetan, berehala ohartzen gara, gizarte horretako elebiduna zein den eta zenolako egoera ematen den bertan. Adibidez: Demagun Estatu Batuetan, zeintzu dira elebidunak? Puertorricorarrak eta txikanoak,... Eta Jugoslavian elebidunik baldin badago? Esloveniarrak edota, kosovotarrak,...

Demagun orain Espainiako estatua hartzen dugula adibide gisa, hemen zeintzu dira elebidunak? Euskaldunak, katalanak, gailgoak... Eta hartzen badugu Sobietar Errepublikaren Federazioa, zeintzu diran elebidunak? Bada, Estoniarrak edo, Lituaniarrak edota, Kirgiziarrak edo, horrelako jendea. Beno, zein dira elebidu-

nak estatu hauetan? Hain zuzen ere, 2.mailako hizkuntza hitzegiten dituztenak. Bigarren maila diodanean, (ez linguistiko-ki) arazo demografikoengatik, ekonomikoengatik, politikoengatik,... bigarren mailakotan bilakatu diren hizkuntzaz ari naiz.

Estatu Batuetan, puertorricorrek gaztelaniaz eta ingelesez hitzegiten dute, txikanoak berdin, beraz, inmigranteak dira elebidunak Estatu Batuetan. Eman dezagun Jugoslaviako kasua; beno, esloveniarrak, hauek gutxi dira, Errepublika txiki bat da, 2 milioi guztira; Jugoslaviako 22 milioekin gonbaratuz gero. Espainiako estatura etorritz gero, badakigu zenbat garen euskaldunak, katalanak eta gailegoak (hiztunak, noski) besteekin gonbaratzen hasten bagara,... minoriak gara.


Beraz, elebidunak hizkuntza txikitakoak (tamainaz, nolabait esateko) eta zeintzu dira elebakarrak? Bada, Jugoslavian serbokroaziarrak; Espainian espainolak, etab.,.

Begi bistakoa da, elebitasuna minorizazioarekin agertzen dela. Elebitasuna ez da gertatzen kasualitatez historian zehar. Estatu batetan, hizkuntza bat minorizatorik dagoenean, estatu horretan 2.mailako

hizkuntzan bilakatzen da, ez da hizkuntza ofizial nagusia bezain inportantea, eta hizkuntza minorizatu hori hitzegiten dutenak horietatik dira bigarren hizkuntza hori ikasten dutenak eta horietatik elebidunak. Beraz, horrek ez du zerikusirik hizkuntzarekin, estatuarekin baizik.

Adibide hauek berak hartzen badituz, esate baterako; puertorricorrek edo txikanoek 1º hizkuntza gaztelania dute, eta hizkuntza hori Estatu Batuetan 2.mailako hizkuntza da, baina ez Espainian eta are gutxiago Mexikon, edo Argentinan,...

Beraz, gaztelania Estatu Batuetan bigarren mailako hizkuntza da, baina ez berez egoera politiko eta estatuari buruzko egoerarengatik baizik. Eta gauza bera gertatzen da kasu hauetan esate baterako; Esloveniarrak elebidunak dira baina Jugoslaviari buruz, eta Eslovenia barruan, esloveniera da hizkuntza nagusia. Eta Esloveniako italiarrak aldiz, hauek izango dira Esloveniako elebidunak. Esloveniarrak beren herritik mogitzen ez diren bitartean, ez dute elebitasunaren beharrik izango. Eta hori edozein lekutan gerta daiteke, adib.; Kosovoarrak elebidunak izango dira Jugoslavian, albanieraz hitzegiten dutelako eta serbokroata hiz-



Elkar Lanean (1979):
Hizkuntz Borroka Euskal Herrian.
Bilbo, Euskaltzaindia, E.V.

kuntza nagusi gisa erabiliko da, baina, Albanian albaniarrek ez dira elebidunak, beren etxean daudelako. Eta hori hemen ez da gertatzen, Euskal Herria libre inon ez dagoelako, eta ondorioz, gu leku guztietan elebidunak gara.

Gailegoen kasuan, gailegoa 2.mailakoa da estatu espainolean, baina ez Brasilen. Brasilgo galaiko-portuges deitzen den hori hizkuntza ofiziala da (gailegoa eta portugesa hizkuntza bera da nahiz eta, grafia desberdinez idatzi. Horixe da hain zuzen Galiziako arazoa). Beraz, Galiziako portugesa, Portugalekoa eta Brasilgoa berdina izanik ere linguistikoki, egoera soziala ez da hala. Gailegoak Galizia barruan elebidunak dira, baina Brasilen ez, Brasilen portugesez hitzegiten dute eta kitto.

Eta hori edozein lekutan aplikatu daiteke. Beraz, **ELEBITASUNA ERABAKI GUZTIZ POLITIKOA DA.** Elebitasuna ez da sortu komenigarria edota, burua argitzeko ona delako, ez, Elebitasuna sortu bada, **HIZKUNTZA HORI HITZEGITEN DUEN KOMUNITATEA MINORIZATURIK ETA ZAPALDURIK GERTATU DENEAN ESTATU BATEAN,** orduan sortu da elebitasuna. Eta elebitasuna jasaten duen hizkuntza hori, aldameneko Estatu baten beste egoera normalizatuan egon liteke.

Har dezagun beste edozein adibide, esate baterako Frantziako mapa. Frantsesa hizkuntza ofiziala eta nagusia da Frantzian, beraz frantsesak ez dira elebidunak beren eguneroko bizitza normalean. Beraz, Europako mapan ikus daitezke frantsesa hizkuntza bera izanik, hartzen dituen graduazio desberdinak, adib.; Frantzian guztiz nagusia da, Valonian aski nagusi, Suitzako zenbait kantoitan baita ere eta, Aostan aldiz, bigarren mailako hizkuntza da. Beraz, hizkuntza baten statusa egoera politikoari loturik doa. Argiro adierazteko, elebidun izatea eta etxeko hizkuntza nolabait esateko, bigarren mailan egoteak ala ez, ez du zerikusirik hizkuntzarekin. Hortaz, Miguel UNAMUNOK zioena guz-

tiz gezurra da: "EL VASCUENCE SE PIERDE IRREMISIBLEMENTE PORQUE ES UNA LENGUA QUE NO ESTA ADAPTADA AL MUNDO MODERNO", e.a.,....

Elebitasunaren errealitatea horixe litzateke beraz, beste gauza desberdina izango da Diglosia. Demagun hizkuntza batek betetzen dituen funtzio eta alorrak: familia, irakaskuntza, ekonomia, administrazioa, armada, prentsa, literatura, komunikabideak, e.a., e.a., direla, horrelako alor-sailkapen bat egiten denean eta elebitasun arazorik ez dagoen edozein herritan, sailkapena hizkuntza berean egiten da, eta hori da gauzarik inportanteena, hots, funtzio guztiak betetzen baditu, hizkuntz nagusia dela adierazten digu. Salamancan adib., funtzio guztiak gazteleraz beteko dira, hizkuntza nagusia gaztelania delako.

BAINA ZER GERTATZEN DA HIZKUNTZ-ARAZOA DUEN EDOZEIN ESKUALDETAN ?

Azter dezagun Euskal Herriko kasua. Hemen bi hizkuntza ditugu, A hizkuntza deituko diogu goi mailako hizkuntzari, hau da, goi mailako funtzioak beteko lituzkeenari; irakaskuntza, ekonomia, administrazioa eta politikoa eta, B hizkuntza aldiz, gainontzeko alorrak betetzen dituenari. Beraz, egiazko diglosia balego hemen, euskara alor batzutan erabiliko litzateke eta gaztelera besteetan. Baina hemen ez da sekula horrelakorik gertatzen, hau da, B hizkuntza familian besterik ez litzateke erabiliko eta inoiz ez erdara, eta A hizkuntza beti, Irakaskuntzan, hots, erdara. Ikus dezakezuenaz, goiko funtzioak erdaraz bete beharko genituzke eta behekoak aldiz, euskaraz, sekula nahastu gabetanik, hori benetako diglosia balego.

Beraz, **EUSKAL HERRIAN DIGLOSIA PAIRATZEN DUEN KOMUNITATEA EUSKALDUNOK GARA,** zoritxarrez. Familian euskaraz eginagatik kalean funtzio nagusi horiek erdaraz bete behar ditu-

gu (nahiz eta, gauzak aldatzen ari diren). Erdaldunentzat aldiz, ez dago diglosiarik, funtzio guztiak erdaraz betetzen bait dituzte. Beraz, diglosia hitza modan jarri den arren, oso arriskutsua da, hemen ez dagoelako diglosia bere zentzu hertsian eta diglosia baldin badago euskaldunentzat besterik ez dago, hori da arazoa.

Hori askotan aipatzen du Aracil-ek, hemen dagoen egoera diglosia baino zaharragoa dela; euskaldunok euskara badakigula jakin arren, hemen bakarrik erabil dezakegu eta kasu batzutan besterik ez, eta erdalunen egoera aldiz, ez da hori.

Oinarrizko beste ideia bat ere aipatu beharrezkoa dugu, zein izan ohi den Estatuaren aldetik gure Herriaren hizkuntzarekiko joera, alegia. Ikusiko dugunez, Eusko Jaurlaritza da salbuespen bakarra hemen. (Ondorioak norberak atera ditzala).

Demagun Finlandia edo Suomi-ko kasua. Suomin bi hizkuntza daude, Suediera eta Suomiera (suekoa eta finesa). Bi hizkuntzok guztiz desberdinak dira, bata indoeuroparra eta bestea, beste talde batekoa, ez dute inolako antzik. Eta une honetan Suomin % 94ek hitzegiten dute Suomieraz eta % 6ak Suedieraz.

Orduan zein da jokabidea?

PERTSONAK ELEBAKARRAK IZAN DAITEZEN, ESTATUA ELEBIDUNA IZATEA. Eta hau argi eta garbi esaten dute, horixe da beraz, Suomiko helburua.

Eta joera hau dago Quebec-en, Suitzan, Belgikan, Jugoslavian eta ia leku gehienetan, zergatik? Hain zuzen ere, arestian aipatutakoarengatik, alegia. Gizarte batean bi hizkuntz baldin badaude, egoera diglosiko bat (zentzu hertsian) sortuko delako edota, istiluak sortuko direlako, zeren eta funtzio berberak baldin badaude hizkuntz desberdinetan, azkenean istiluak, tentsioak e.a., sor bait daitezke. Orduan, une honetako joera horixe da; estatu elebiduna, hirueleduna edo SESB-eko kasuan bezala 120 eleduna, pertsonak elebakarrak izan daitezten.

Hori hala izanik, nola esplika daiteke hemen gertatzen dena? Hemen alderantzizko joera hartu baita, hau da, estatu elebakarra eta pertsonak elebidunak, hain zuzen ere.

Esate baterako Eusko Jaurlaritzan edota, Lege Biltzarrean, dena edo ia gehiena gaztelaniaz egiten da, beraz, hizkuntza prakti-



CIEME
Centre Internacional,
Escarré per a les Minories Etniques
i Nacionalitats.
Pau Claris, 106, 1er.. 1ª
BARCELONA

koa bat, gaztelania da, baina gero eta ofizialki elebitasun orokorra proposatzen da, denak bi hizkuntza jakitea. Badirudi hemengo helburua **MUNDU GUZTIAK BI HIZKUNTZAK HITZEGITEA DELA, BAINA GERO, BAKOITZAK NAHI DUENA EGINEZ**, eta ez dago munduan horrelako exenplurik.

Berriro diot, Belgikan, Suitzan edota, Quebec-en dagoen elebitasuna, elebitasun territoriala da eta inolaz ere ez da planteiatzen "hemen denak libre"; hemen planteiatzen den bezala. Eta hori Soziolinguistikaren aldetik ulertzen ez den puntua, munduan gertatzen den elebitasuna, edo pertsonala edota, lurraldeka presentatzen delako.

Beno, eta honekin bukatzeko, **ZENOLAKO GARRANTZIA DU EUSKARAK BESTE HIZKUNTZEKIN GONBARATUZ GERO?** Ez dugu ahaztu behar hiztunen kopurua bakarrik ez dela arrazoia, hortaz aparte, kontutan hartu beharrekoa da hiztunon ekonomi egoera, argitaratzen diren liburu-kopurua, e.a., e.a., eta orduan zifra horiek aldatu egiten dira.

Ondoren ikusiko dugun sailkapen hau aski zaharra da baina, egoera ez da askorik aldatu, zifrak zertxobait aldatu diren arren:

- 1º hizkuntza munduan Txinera da. 645 milioi (Dena den, ez da pentsatu behar Txinan denek txineraz egiten dutenik, han ere bai bait daude minoria handiak gainera).
- 2. Ingelesa dator 265 milioi (1º hizkuntza gisa dutenak)
- 3. Indiera 185 milioi
- 4. Gaztelania 145 milioi
- 5. Errusiera 135 milioi
- 6. Alemaniera 100 milioi
- 7. Japoniera 95 milioi
- 8. Arabiera 90 milioi
- 9. Bengaliera 85 milioi
- 10. Portugesa 75 milioi
- 11. Frantsesa 65 milioi, e.a., e.a.

Eta euskaldunok dakizuenez 620.000 gara, beraz, 0'6. Zifren aldetik begiraturaz

gero, munduko 4. eta 11.naren aurka burrukan ari gara. Berehala ohartuko gara txinera orain arte oso herri pobrea zela teknikarik ez zutelako, nahiz eta orain gauzak aldatzen ari diren, indar politiko eta ekonomikoaz jabetuz. Horregatik, zerrenda honetan ingelesa 2. agertuagatik hizkuntzarik inportanteena jotzen da, Reagan eta Thatcher-en indar ekonomiko guztiaren jabe delako, hortaz gainera, munduan argitaratzen den %90-95 liburu, ingelesez argitaratzen da. Eta irlandearen kasuaren azalpenaren zati bat hori izan daiteke, munduko hizkuntzarik indartsuenaren aurka borroka egin beharra. Diru mailan aldiz, badakigu amerikarrak zer diren eta ez amerikarrak bakarrik, ingelesak ere hor daude eta, Kanada baita ere; azkenik, aipatu behar Indiaren batasuna askotan ingelesez egiten dela oraindik ere, beraz, izugarri indartsua da.

INDI eta **BENGALI** Indiako hizkuntzak dira, egia esateko Bengali Bangladesh-koa da baina Indian 85 milioi bengali daude-nez hizkuntza nagusizat hartzen da, halaz ere, Indi da Indiako hizkuntza nagusia 185 milioirekin, (tamildarrak ere 50 milioi dira baina indar ekonomikorik eta politikorik ez dutenez..., ez dira kontutan hartzen, jakina, 700 milioi diren lurraldean, 50 milioi ..., huskeria.

Ondoren, **gaztelania** dator; gaztelaniak inportantzia handia du, ez teknika eta ikerketa aldetik kopuru aldetik baizik.

Errusiera ere oso inportantea da, 135 milioiren hizkuntza izatez gainera, beste 100 milioi sobietarren 2. hizkuntza da, eta hori aski ez balitz, sekulako potentzia militarra, ekonomikoa, e.a. dute.

Hauen atzetik **alemaniera, japoniera, arabiera** e.a. datoz, guztiak dira inportanteak baina etorkizunari begira **arabiera** izan daiteke handienetako bat, zergatik? Asko direlako bate-tik, eta bestetik, espainieraren gisa estatu askoren hizkuntza delako.

Atzetik datoz **portugesa** eta **frantsesa**, baina ez dezagun ahan-tzi atzean egonagatik **portugesa** Brasilen 100

milioiek hitzegiten dutela eta frantsesa aldiz, Suitzan, Belgikan, Quebec-en eta hortaz gainera "Afrika frankofona" deritzan horietan ere mintzatzen dela.

Orduan, hau da labor-bilduz, hizkuntzen egoera eta euskararen tamaina munduko hizkuntzekin gonbaratuz.

Beraz, euskararen arazoa nahiko zaila da eta gogor jokatu beharko dugu gaztelaniak eta frantsesak irents ez gaitzaten nahi badugu bederen.

Honekin ez nuke pesimismoa sortarazi nahi baina bai errealismo piska bat. Hala ere, herri txikia eta gutxi gabela e.a.-ek, ez du esanahi gure hizkuntzaren geroa gauza guztiz arraroa izango denik. Gure antzeko kasuak berehala aurki genitzake; adib.:

Esloveniera, 2 milioi.

Islandiera, 300.000 eta halere hizkuntza ofiziala da eta ez dute inolako arazorik planteiatzen, denek islandiera hitzeginatik 2.hizkuntza gisa ingelesa ikasten dute; **Suomiera**, **mazedoniera**, **albaniera** e.a. hauek guztiak beren hizkuntzan bizi dira nahiz eta gero komunikazio-hizkuntza gisa beste bat hautatu behar izan duten.

Beraz, beste herrialdeon antzera, hemen ere elebitasun funtzional bat planteiatu beharko dugu.

(Georgiako kasua adib., 3 milioi t'erdi dira, une honetan irakaskuntza, unibertsitatea, e.a. **georgieraz** egiten da eta 2. hizkuntza gisa hartu dute errusiera).

Orduan, ez dut uste hemen ezer berririk asmatu behar dugunik eta, nire proposamena horixe da: **gure hizkuntza nazionala euskara da eta gero, 2. hizkuntza bezala, hizkuntza unibertsal bat.**

Katalunian esate baterako eta unibertsitate mailan proposatu dute jadanik; katalana hizkuntza nazionala eta kultur-hizkuntza unibertsal bezala, ingelesa.

Askok pentsatuko du hemen gaztelania, hartu beharko dugula 2 hizkuntzat eta, iparraldekoek aldiz, frantsesa.

Goi-komunikazio mailan, nik uste dut

Euskal Herriaren etorkizunean pentsatu behar dugula eta munduko hizkuntza nagusi bat hautatu behar dugula, eta hizkuntza nagusi horiek ez dira asko; ingelesa, frantsesa edo errusiera..., edo japoniera..., hori bai, guztien gaineratik bakoitzak bere hizkuntza nazionala. Horixe da mundu guztian planteiatzen den arazoa.

Hortaz zer egin behar dugu gaztelaniarekin, ahaztu? Ez da kasu bakarra izango eta adibideak jartzez gero eta hor ditugu Finlandia eta Flandes-ekoa alegia. Finlandian lehen, suediera hemen gaztelania bezala zen eta gaur egun oso gutxi daki eta horren orde ingelesa ikasten dute, eta gauza berbera gertatzen da Flandes-en, lehen jende guztiak frantsesez bazekien eta orain aldiz ez, orain jendea antifrakofonoa da gainera, eta ingelesa edota alemaniera ikasten dute bigarren hizkuntza gisa eta frantsesa orain oso jende gutxi daki. Ahaztu egin da. Gauza hauek ezinezkoak badirudite ere, gerta daitezke.

Dena den, Euskal Herriko hizkuntz arazoak ez dira ezer beste herrialdeetakoekin gonbaratuz gero. Esate baterako, azken urteotan Belgikako Gobernuak bigarren aldiz erori da hizkuntz arazoak direla medio.

Ea noiz lortzen dugun hemengo Gobernuak bigarren aldiz erortzea euskara arazo dela medio.

ELEBITASUN OREKATUAREN MITOA

Gaur ikusiko dugun gaia zera izango da, zernolako baldintzetan gerta daitekeen bi hizkuntza guztiz parean egotea, hots, orekaturik egotea.

Elebitasun orekatua sikolinguistikoki eta soziolinguistikoki lortu behar da, eta bi arlook nahiko lotuta badoaz ere, bereizketa egiten da metodologi aldetik askoz errazagoa delako.

Duela berrogeitamar urte saio txiki batzu egiten hasiak direla, hau da, test antzekoak; erantzunaren azkartasuna edota, aberastasuna neurtzeko. Lehenengo elebakarrekin eta gero elebidunekin eginez eta, frogatu da elebidunek ez dutela elebakarren maila bera adierazten edo ematen. Beraz, zergatik ez den posible elebitasun orekaturik ikusten saiatuko gara.

Hizkuntza batean hiru maila bereiz daitezke; **fonologia, morfosintaxia eta hiztegia**; alde batetik, kate mintzatuaren fonologian, soinuak,... morfosintaxian deklinabidea, aditza, e.a.,... eta azkenik, hiztegia. Orduan elebidun batek bi sistemak menderatu behar ditu, inolaz ere nahastu gabe, baina praktikan posible ote?

Gure kasuan adib., har ditzagun txistukariak adibide gisa, (**ts, tz, tx**), gure ortografian 3 frikari eta horien kideko beste 3 afrikatu ditugu, (**s, z, x**). Erabiltzen ditugun sei soinuok korrelazio batean daude. Hauen ondoan sartzen baditugu frantsesaren edota, gaztelaniaren fonema bilduma guztiz desberdinak dira. Eta horrelako kasuetan interferentziak sortzen dira (**atso/atzo**), (**ertzantza/erchancha**), eta horrela adibide piloa eman daiteke, eta guzti hau fonologia mailan besterik ez. Beraz, oso zaila da elebidun batek bi sistemak menderatzea eta ongi bereiztea.

Azentuaren kasuan ere diferentzia izugarria da euskara eta gaztelaniaren kasuan

adibidez. Euskarazko azentu normala **ezkerraldeko 2. na** delako. Beraz oso zaila da sistema horiek bakoitza bere aldetik bereiztea, erregela fonologikoak, azentuak, morfosintaxian ergatiboa, e.a., e.a.

Beraz, eta bukatzeko sikolinguistikaren aldetik **elebitasun orekatua gezurra da**. "Slogan" politikoa izan daiteke baina, inoiz ez zientzia, zientziaren aldetik elebitasun orekaturik ez dagoelako.

Bestalde, aipatu behar dugu **elebitasun nahasia eta elebitasun koordinatua**. **Elebitasun nahasia** izango litzateke familia berean, bai aitak eta baita amak ere astelehenetan hizkuntza bat mintzatzeari, astearteetan bigarrena, etabar. Ikus dezakezue, oso zaila da nahiz eta, horrelako frogak eginak diren. Horrek esan nahi du kontestu berean jasotzen den hizkuntzaren esperientzia, konnotazioak..., berdinak direla. Baina noiz gertatzen da hau?

Elebitasun koordinatua aldiz, zera izango litzateke, pertsona batek familian hizkuntza bat eta kalean beste hizkuntza bat erabiltzea, baina jakina, bi mundu desberdin direnez gero, bi eskala desberdinen jabe dela adierazi nahi du, esan nahi baita, hizkuntza batetik bestera pasatzean, kontestua ere aldatu egiten dela, eta elebitasun koordinatu horren kasuan, hitz bakoitza bere estabilitate osoaren jabe da eta, oso zaila da bi mundu desberdin horiek berdintzea. Adib., maitasuna aldetik ez da gauza bera "kuttun" eta "cariñito mio", hots, kontestua eta adierazia bera ere desberdinak direlako. Eta gurasoetako batek hizkuntza batean eta besteak beste hizkuntzan egiten duten kasuetan ere oreka mantentzea oso zaila da, koordinatua izateko ordu berberak eman beharko lituzkeelako bakoitzak, hau da, amak bost ordu euskaraz egiten baditu, aitak ere beste bost ordu egin beharko lituzke, eta plan horretan ihardutea oso-oso zaila da.

GLOTOPOLITIKA. SOLUZIO NAGUSIAK

Azken egunean ikusi genuenez, Sikolinguistikaren aldetik ezinezkoa dela bi hizkuntzak berdin-berdin menderatzea eta elebitasunaren oreka alor guztietan mantentzea. Hori frogatu ahal izateko zenbait kasu ikustera pasako gara.

Eskola alorrean adib.; Ezinezkoa da bi hizkuntzak (praktika mailan batez ere) maila berean egotea, zeren zentru mailan esate baterako, klase batzu erdaraz ematen badira, gai horiek berak euskaraz eman beharko bait liriateke, eta eskola mailan aldiz, erdi eta erdi egon beharko bait lukete. Adibidez, eskola bat erdaraz eta beste bat euskaraz eta leku berean; ikus dezakezuenez, ezinezkoa.

Unibertsitate mailara bagoaz, Belgikako kasua eduki beharko. genuke kontutan, hau da, karrera zein hizkuntzatan ikasi nahi den aukera bera edukitzea.

Prentsa alorrean, gauza bera gertatu beharko luke, hots, erdaraz hainbat euskaraz, eta kalitate berekoak eduki beharko genituzke.

Telebistaren kasuan berdin-berdin.

Ekonomia arloan berdintasuna lortzea askoz ere zailago gertatzen da, zergatik? Lanpostuen kasuan posibilitate berberak eduki beharko genituzkeelako, bai euskaraz eta baita erdaraz ere, bestalde, klase sozialak hiru hizkuntzen aldetik maila berean egotea, e.a., e.a. Hemengo kasuan adib., hemengo gizarte klase euskalduna baserritarra eta arrantzaleak dira eta ez gainera, baserritar guztiak, zeren Nafarroako baserritar denak ez bait dira euskaldunak, zoritxarrez. Beraz, hemen ez dago hizkuntz-egoera berbera klase sozial guztietan. Oso desoreka handia dago, dirurik gabeko klase soziala da hain

zuzen euskaraz mintzatzen dena.

Horregatik, gizarte bateko bi hizkuntzak orekaturik egotea oso zaila da, bata, klase nagusiaren hizkuntza bilakatzen den bitartean, bestea, klase zapalduaren hizkuntza iza-

ten da, azken finean, klase burruka eta hizkuntz burruka oso lotuta egoten direlarik leku askotan, esate baterako Galizian.

Beste adibide bat jartzekotan, **Politika eta Administrazio** alorra izango litzateke, hau da, edozein aparato administratibotan edota, indar politikoaren artean bi hizkuntzak berdin-berdin erabiltzea, baina gaur egun erdara da nagusi.

Beste arazo garrantzitsu bat adin-arazoa izango litzateke, hots, gazte eta zaharren hizkuntzen artean egoera linguistikoa bat eta bera izatea. Baina arazoa ez da inondik orekatua, ezta egonkorra ere. Hori nabaria da Euskal Herrian zeren, askoz ere hobeto eta gehiago hitzegiten bait dute gazteek zaharrek baino.

Honekin esan nahi dudana zera da; zazpi alor hauetan bi hizkuntzak maila berean eta orekaturik egotea guztiz ezinezkoa dela sikolinguistika eta soziolinguistikaren ikuspegitik.

Azkenik, gizarte berean bi hizkuntza elkarren ondoan eta pertsona beraiengan bizi badira, beti egongo da desoreka bat, ondorioz, desoreka horrek dinamika bat sortzen du, eta egoera orekatua balitz, egoera egonkorra litzateke baina, desoreka dagoeanean egoera mugikorra da. Beraz, edozein egoera elebidunetan dinamika bat dago eta egoera hori aldakorra denez aldatzera jotzen du. Nola aldatzen den? Edo normalizaziorantz edota, ordezkapenera joz.

ZER DA NORMALIZAZIOA?

Antzinan zegoen hizkuntza berriro ere normalizatzea, hots, bertako hizkuntza nagusi-tzea eta normal bihurtzea alor guztietan; hori da nolabait esateko Finlandian gertatu dena adibidez, hori litzateke irtenbide bat.

ETA, ORDEZKAPENA?

Beste irtenbidea aldiz, ordezkapena izango litzateke edo beste modu batera esanda, inperialismoarekin etorritako hizkuntza nagusitzea. Gure Herrian normalizazioa izango litzateke soluziobide bakarra, hau da, Euskara Euskal Herriaren hizkuntza bilaka dadin nahi badugu bederen.

Duela 500 urte gauzak estatikoagoak izango ziren, noski, baina orain komunikabideak direla medio, arazoa azkartuz doa, hau da, lehen elebitasun orekaturik ez egon arren, hizkuntzek gehiago irauten zuten beraz, Euskal Herrian euskarak iraun badu orain arte, gehiengoa baserritarra zelako izan da, baina gaur egun bai ote baserritarrik? Gipuzkoan % 8, Bizkaian % 6, e.a.,...

Hitz batez, eta puntu honekin bukatzeko hemen hautatu behar duguna zera da, normalizazioa eta horretarako, plangintza egin beharko da, non egoera politikoa, psikologikoa, e.a...., kontutan hartu beharko diren, hots, helburu batzu jarri eta ikusi beharko da jendeak nola pentsatzen duen. Hortaz, gaurko genuen puntuari lotuko gatzazkio, **Glotopolitikaren bide nagusiak.**

ZER DA GLOTOPOLITIKA?

Jakingo duzuenez, **GLOTO** hitzak **HIZKUNTZA** esan nahi du, beraz, glotopolitika **hizkuntzaren alorrean** egiten den politika izango da. Eta gaur egun modan jartzen ari bada, plangintza eta zapalketa linguistikoa hor sartzen delako da hain zuzen ere. Eta ideia orokor bat emateko garaian, aipatu besterik ez ditut egingo zein diren hartzen ari diren jokabide nagusiak, hots, **genozidioa eta etnozidioa.**

Beraz, herri bat zapaldu eta likidatu nahi denean fisikoki **genozidioa** deituko diogu.

Adibide nabarmenenak aipatzez gero, honokook aipatu beharko genituzke; 1914ko guda garaian armenioekin gertaturikoa, hau da, Armeniak bi zati nagusi ditu, bata SESBen eta Turkia aldean bestea. Eta Turkia aldean ehun milaka garbitu zituzten, bi milioiren bat denera. Beraz, Turkiako Armenian ez dago armeniarrik eta han arazoa konponduta dago. Hau izan da genozidio nabarmen bat baina ez bakarra. Alemaniarrek -juduekin ere horixe bera egin nahi izan zuten eta sei milioi baino gehiago hil zituzten azken gerran. Ikus dezakezuenez, leku askotan gertatu dira horrelako gauzak, nahiz eta askotan aipatu ere ez diren egiten.

Eta **etnozidioa** aldiz, pertsonak hil gabe hizkuntza hiltzeari deitzen zaio. Hau da orain leku askotan gertatzen ari den fenomeno, hain zuzen ere. Gure kasura etorriaz, Euskal Herrian, nik esango nuke etnozidioaren mailan gaudela gu; nortasuna kendu nahi digute, hortaz, hemen eta benetan, esan daiteke etnozidio baten aurrean gaudela. Baina etnozidioa graduazio desberdinetan eman daiteke; oso bortizki edota, ez hain bortizki; hor ere maila desberdinak daude, beraz, soluzio moderatuagoetara baldin bagoaz, hiru soluzio moeta aipatu behar ditugu: **liberalismoa, eskubide pertsonalak** aitortzea, eta beste bidea, aldiz, **lurraldetasun eskubideena** izango litzateke. Hemen aztertuko ditugun bideak batipat, hiru hauek izango dira.

LIBERALISMOA

Oso erraza da, hain zuzen ere ekonomia aldetik egiten duten gauza berbera egitea baita; teorikoki libre uztea, alegia. Beraz, liberalismo sistema batetan arazo linguistikorik badaude ere, ez da aipatu ere egiten. Adibide garbia Frantziako kasua dugu, zeren beraien ustez ez bait dago arazo linguistikorik eta ondorioz, ez dago legerik. Ekonomia alorreko fenomeno berbera da. Horri euskaraz, oihaneko legea deituko genioke; oihanean ez dagoelako ez legerik eta ez ezertxo ere, baina beti oreka bat dago. Nola? Bada, pizti handiek txikiak janez eta halere, beti mantentzen da egoera bat eta horixeri deitzen zaio egoera naturala.

Orduan, hizkuntza mailan bakoitzak libreki

eta nahi duen moduan jokatzuz, ikus daiteke desoreka bat sortzen dela, baina oso ondo mozorroturik gainera, zeren, hizkuntza mailan hori horrela balitz, ingelesa nagusituko bait litzateke dudarik gabe. Zergatik? Indartsuena berau delako.

Beraz, muga bat jarri beharra dago euskara salbatu nahi badugu. Zergatik? Ahulen eta txikien eskubideak defendatu nahi badira libertateak ez duelako balio, hori da errealtatea. Eta adibide gisa flamendarrena hartu beharko genuke; flamendarrak beti demokratik ez balira bezala agertzen dira, eskubide pertsonalen gainetik lurralde eskubidea defendatzen dutelako.

Eta jakina, demokrazia oso ongi dago baina agintzen dutenentzat, noski. Demokraziak esan nahi duena zera baita, jokabide desberdinak hartu behar direla nolabait konpentsatu nahi baditugu egoera normalean dauden desoreka horiek berdintzeko; eta zapalduta bizi garenok hori oso ongi dakigu.

Beraz, eta soziolinguistikan, liberalismoa hizkuntza nagusien aldeko jokabide bat besterik ez da. Orduan, eskubide pertsonalak eta lurraldetasunezko eskubideak gelditzen zaizkigu aztergai.

ESKUBIDE PERTSONALAK ETA TERRITORIALAK

Eskubide pertsonalek zera esan nahi dute; Estatu baten barruan pertsonak nahi duen hizkuntza erabiltzea edonon, hau da, pertsonak agintzen du. Beraz, edozein plangintzatan alor nagusitzat hartzen diren eskola eta udal administrazioan, guraso eta hiritarrek hautatzen dute; eta lurraldetasunezko eskubideak baldin badaude aldiz, gauza guztiz bestaldera da, beraz, eskubide territorialak eta pertsonalak, elkarren oposizioan daude. Beraz, lurraldetasunezko eskubideak dauden lekuan lekuak agintzen du.. Eta aurreko adibideak hartuz gero, hots, eskola eta administrazioaren kasuetan, Gobernuak ordainduko lioke bere lurraldeari legokiokeen hizkuntzan antolaturiko eskolak eta, gurasoren batek bere seme-alaba beste hizkuntzaren batetan hezi nahiko balu, bere poltsikotik ordaindu beharko du. Udal administrazioan

gauza bera gertatzen da. Belgikan esate baterako, erabaki garrantzitsu bat hartu da; lan-hizkuntza eta kanpoaldeko hizkuntza bereiztea, alegia.. Hori dela eta, une honetan Brusela inguruan gerta daiteke barneko lan-hizkuntza flamenkeraz izatea eta kanpoaldeko jendearekin frantsesez egitea; honekin, norma piska bat leundu nahiean edo. Eta Kanadan ere antzeko zerbait egiten dute, nahiz eta maila pribatuan ere Gobernuak sartu duten. Adib., Flandes-ko partean dokumentu pribatu bat frantsesez agertzen bada, ez du balio legalik. Bestalde, zenbaiten ustez, Gobernuaren interbentzionismo hau ez omen da batere ona, kontrako erreakzioak sor ditzakeelako, baina dena den, eta ikus dezakezuenetz lurraldetasuna aipaturiko kasuetan askoz ere aurrerago joan da, zeren ez baita eskola eta udal administrazioa mugatu, baizik eta Unibertsitatara, barneko lan-hizkuntzara, kanpoaldekora, e.a.,...

Halere, leku guztietan ez dituzte gauzak berdin eraman. Adibidez, Suomin (Finlandia) askoz ere moderatuagoak bait dira.

Beraz, eta bukatzeko esan behar da, eskubide pertsonalek ez dutela inon hizkuntz minorizatuen egoerarik konpondu. Hori argi eta garbi utzi behar da zeren arazo hori konpondu duen bide bakarra lurraldetasuna izan bait da, eta hor arazo politiko batean sartuko ginateke, herri guztiek ez dutelako jarrera bera hartu, baizik eta batzu besteak baino gogorrago jokatu bait dute.

Eta gure kasura etorriaz, Euskal Herriko arazoa zera dugu; kontzientzia linguistikoa edo politikoa eta abertzaletasuna praktikan ez doazela lotuta lurralderik euskaldunenean ere, hots, Gipuzkoan ezta ere. Eta Finlandian esate baterako, ez dute inolako arazorik izan erabaki gogorrenak ere hartu behar izan dutenean, eta hemen aldiz, une honetan gogor jarriz gero arazoak izango genituzke. Dena den, Belgikako plana hau da, lurraldetasuna, eta guk ezin dugu inolaz ere aplikatu hemen ez dagoelako ezer, ez eskubide pertsonalik eta are guttiago, lurralde eskubiderik.

LURRALDE TASUNEZKO ESKUBIDEA ETA ESKUBIDE PERTSONALAK SUOMI-n EMAITZAK.

Guk Finlandia bezala ezagutzen duguna, beraiek **SUOMI** edo Finlandia, hemengo Euskal Herria/Pais Vasco bezalaxe. Beraz, herri horri zor diogun errespetuz Suomi deituko diogu hemendik aurrera eta ez Finlandia. Eta hau esanik, goazen Suomiko hizkuntz egoera aztertzeraz.

Helsinki iritsi bezain laster lehendabizi ikus daitekeena zera da, errotulazio guztiak bi hizkuntzetan (Belgikan bezalaxe) goiko hizkuntza suomieraz eta behekoa suedieraz, beraz, seinalizazio guztia elebiduna da. Zergatik suedieraz? Diotenez XIII mendean joan omen ziren lehenengo suediarrek Suomira. Bi hizkuntzok ez dute inolako antzirik beraien artean; suediera germanikoa da eta suomierak aldiz, (euskara bezalaxe), ez du zerikusirik Europako hizkuntzekin. (Ikus, mapan kokapena). (Ingriera eta kareliera adib., suomieraren adarrak dira, eta talde honetako beste hizkuntzak EESTI <Estoniakoa> eta SAAMI <laponiarren hizkuntza> dira). Orain goazen ikustera zein proportziotan dauden.

Azken egunean esaten genuen Belgikan flamenarrak zirela nagusi, esan nahi dut %60 zirela eta besteak aldiz, %40 frankofonoak; Suomin berriz, suomitarrek gehiago dira, suediarrek %62 diren bitartean. Ez da inolaz ere gure kasua baina, interesantea da ikustea eskubide linguistikoek zer eman duten, alde horretatik batipat, zeren duela ehun urte ez bait zen hori gertatzen, guztiz alderantzizkoa baizik, hots, suediera zen nagusi.

SUOMI 304.000 Km. ditu, lurraldez handia da baina jendez hutsa; jenderik gehiena

beheko partean eta kostaldean bizi delarik. Suomitarrak 4.057.121 dira (1983ko datuen arabera) eta suediarrek 299.016 lagun 16.000 km. tan, beraz, Euskal Herriaren zabalera (ikus, mapa).

HIZKUNTZ EGOERA.

Belgikan bezala eskubide pertsonalak eta lurraldetasunezkoak daude aspaldidanik. Suomi Errusiako parte zen eta Lenin-en iraultza etorri zenean autodeterminazioa lortu zuten. Beraz, 1919an Errepublika izendatu zuten eta 1920an egin zen lehenengo lege linguistikoa. Zer zioen lege honek?" Suomin bi hizkuntza daude eta biak izango dira ofizialak, hau da, berdintasuna izango dute". Belgikan bezalaxe. Zer esan nahi duen? Bada, nahi duenak nahi duena hitzegin dezala, inori ez zaio debekatuko, inor ez da diskriminatuko.

Ikus daitekeenez, Suomiko eta Flandesko fenomeno ia-ia paraleloki joan dira. Orduan 1935ean edo, lege hori zehaztu asmoz beste lege bat atera zuten, hau da, zeinahi lekutan %12 edota %88 arteko jendetza baldin badago hizkuntza batean, eta oso garbi ez dagoenez esan nahi du gehiengoak hor eskubide pertsonalak direla nagusi, elebitasun ofiziala, alegia eta ondorioz, Belgikan bezala, eskolak eta udal administrazioak eskubide pertsonalen arabera funtzionatuko dutela, hots, norberak hautatuko du zein hizkuntzatan bizi nahi duen.

Geroztik, lege hori piska bat aldatuz joan da, hasierako eskakizuna gutxituz, %90 eta %10 eskatzen bazuten, gaur egun, %92 eta %8ra (ikus mapan suomieraren egoera) jaitsi da. Baina proportzio hauek aplikatuagatik ere

suomieraz %94 eta suedieraz %6 hitzegiten da, hau da, eskubide pertsonalak aplikatua-
ren sekulako abantaila damaie suomita-
rrei.

Hala ere, zer gertatzen zaie? Zenbait herri-
tan suomiera nagusi izan arren eta ondo-
rioz, lurraldetasunezko legea aplikatzea
egokitarren, bada, suediera dela nagusi.
Zergatik? Burgesia suediarra delako eta
indar ekonomikoa berauen esku dagoenez,
gutxiengo honek agintzen du, hau kontu-
tan hartzekoa da, beraz, lurraldetasunezko
eskubideak lortzea oso zaila da gaur egun.
Beraz, sistema hau ematen da Suomin eta
eskala hau aplikatuko bagenu Euskal
Herrian une honetan, eskubide pertsonalak
izango genituzke leku askotan, dudarik
gabe.

IRTENBIDEA SUOMIERARENTZAT.

Hizkuntz aldetik unitatea **udalerrria** denez,
10 urtetik behin inkesta bat pasatzen dute
eta beronen arabera aplikatzen dituzte
eskubide pertsonalak ala lurraldetasunez-
koak eskola eta udal administrazioan;
baita ere esan behar da, legeok ez direla
Unibertsitate mailaraino eramaten ausartu,
bestalde, maila pribatuan ere ez dira ausar-
tu sartzera ez dagoelako legislaziorik
Quebec-en edota Belgikan bezala.

Beraz, eskualde mailan, herri eta erresuma
mailan ere, eskubide pertsonalak nagusi
diren arren eta proportzioari begiratuz
gero, ia 400 udalerritan dira lurraldetas-
sunezko eskubideak nagusi.

Nola jakin daiteke hori? Errotulazioaren
bidez. **Lurraldetasunezko eskubideak
dauden herrietan, hizkuntza batetan
besterik ez da idazten herri izena eta
eskubide pertsonalak nagusi diren
herrietan aldiz, bi hizkuntzetan.**

Orduan, lehenengo inpresioa da, egoera
lurraldetasunezko eskubideen alde dagoela
baina kontutan hartu beharrekoa da, sue-

diarrak %6a besterik ez izan arren, herri
handienetan daudela eta aberatsenak
berauek direla (Helsinki adib., komer-
tzioa suediarren eskutan eta suedieraz
mintzatzen direnen eskutan dago hain
zuzen ere). Beraz, Belgikan askoz ere
gogorrago jokatu dute.

Une honetan Helsinki %90 dira suomie-
raz mintzo direnak eta %10 suedieraz,
beraz, Helsinki suomitarrak nagusitu dira
erabat eta Belgikan aldiz, flamendarrak
%20 besterik ez dira. Oso egoera desber-
dina da zeren, flamendarrak gehiengoa
izanik Belgika osoan, hiriburuan minorita-
rioak bait dira eta suomitarrak aldiz, nagu-
siak herri osoan eta baita Helsinki ere.
Nola litekeen? Harrigarria bada ere feno-
meno hori Helsinkiko industrializazioari
esker gertatu zen, hots, herri txikietakoko
langileak bertaratu zirelako alegia, hau da,
inmigrazioak alde jokatu zuelako.

Euskal Herrian aldiz, guztiz kontra jokatu
du inmigrazioak dudarik gabe.

Beraz, Helsinki arazoari buelta eman
ahal izan badiote, inmigrazioari esker izan
da. Ikusten badugu suediar jendaketaren
beherakada (beti 300.000 lagun direla
diote), estatu bat aldamenean, klase nagu-
sia beren alde eta hala ere gainbehera,...
eta hori disimulatzeko mila eta bat ahale-
gin eginagatik ere beheraka doazela,...
beste neurri bat hartu dute eta hau izan da:
eskala aldatzea, hau da, %92 eta %8 ra
jeistea alegia)

Errolda 10 urtetik behin egiten da eta duela
27 urte edo, etxeko hizkuntza nagusia zein
zen galdetzen bazen ere, orain, etxeko
nagusien ama hizkuntza zein den galde-
tzen dute. Hemen faktore subjektibo bat
dago, gainbeherakada ez errekonozitzeare-
na alegia eta, badirudi errolda guztiz sue-
diarren alde ateratzen zaiela metodo honen
bitartez zifrak puztuz; baina maltzurkeria
guztiak erabiliarren oso-oso gaizki daude.

Orduan, kuadro txiki baten bitartez, alde
batetik suomitarrak eta bestetik suedia-
rrak, ikusiko ditugu zertan dauden eskola-

tze mailak. Alde batean: 1.mailakoa - 2.mailakoa bestean, (Lizeo-Unibertsitatea). Beno, zifra hauek dira: 1.mailakoan ez da gauza handirik ikusten; 2. mailakoan, suediarrek askoz gehiago dira, Unibertsitate mailan batipat; askoz ere tituludun gehiago dago suediarren artean.

Honen bitartez ikus daitekeena zera da; askoz ere hobeto daudela suediarrek hizkuntza mailan suomitarrek baino, (duela ehun urteko datuak, noski!, suomitarrek hemengo euskaldunak bezala zirenekoak, alegia.)

Beste puntu nagusia zera da Telebista. . Han bi kate daude eta biak suomieraz dira, horrek ez du esan nahi suedieraz entzuten ez denik baina, oso ordu gutxi batzu besterik ez.

Prentsan une honetan Helsinkiko egunkariarik onena suedieraz egiten da. Prentsa mailan sekulako indarra dute suediarrek eta Telebistan aldiz ez, gauza harrigarria bada ere.

Hango helburua ez da elebitasuna horregatik ez dute elebitasuna zabaltzeko asmorik, hori oso garbi dute. Horretan, flamendarrak bezain erradikalak dira. Nik ditudan zifrak hauek dira: suomitarren artean % 20 dira


elebidunak.(Azken berriek diotenez, ingelesa sartu nahi omen dute bigarren hizkuntzatat. Belgikako fenomeno bera. Eta hori PACTO NORDICO deituriko hitzarmena dela bide eta suediera inportantea izanik,...)

Beraz, suomitarrek %20 elebidunak direla kalkulatu eta suediarrek aldiz, %55a, bistan da, askoz ere elebidun gehiago daudela suediarren artean suomitarren artean baino.

Timo RIIHO, Helsinki Unibertsitateko irakaslea den honek dioenez, **instituzioek izan behar dute elebidun, jendea elebarkar izan dadin.** (Hemen gertatzen denaren alderantzizkoa, ezta?)

Halere,(eta irakasle beronek dioenez) seirehun mila direla elebidunak eta guztira bost milioe direnez, oso elebidun gutxi dagoela Suomi (Finlandia) osoan. Lehen askoz gehiago omen ziren suomieraz zekitenak eta bigarren hizkuntza beharrezkoa zenez, suediera ikasten omen zuten; baina duela 50 urtez hona (adib.; Helsinkin 1930 arte eta elebidunak kontatuz hizkuntza nagusia suediera zen) eta hain denbora motzean gezurra badirudi ere, gauzak aldatu egin dira.

Les Ethnies (R. Breton, 53)



PERTSONA ETA LURRALDE ESKUBIDEAK BELGIKAN. EMAITZAK

Lehenengo gauza esan behar da, Belgikako kasua oso interes handikoa zaigula, aspaldidanik lege hauek, hots, eskubide pertsonalak eta lurraldetasunezko eskubideak aplikatzen direlako, eta teoria mailan ez ezik praktika mailan ere ikus ditzakegulako berauen emaitzak eta ondorioak zer eman duten eta horrela guk jakingo genuke zerk konponduko lukeen euskararen arazoa eta zerk ez, beraz, hori izango dugu gaurko gaia.

SARRERA.

Belgikan hiru hizkuntza hitzegiten dira; **Nederlandera** hizkuntza ofiziala, **Frantsesa** eta hirugarrena **Alemaniera**,

baina azken hauek 60.000 lagun besterik ez dira. Biztanlegoari dagokionez, hamar milioe dira Belgika guztian, hau da, Euskal Herria 3'5 aldiz gehiago alegia, jende kopuruari dagokionez.

Hizkuntzaren arloan, Nederlandera hizkuntza ofiziala izanik Belgikan mintzatzen dena beronen dialektoa da flamenkera deritzana, beraz, **flamenkera** izango litzateke Belgikako nederlanderak hartzen duen forma, eta frantsesaren kasuan gauza bera, Belgikako frantsesa **valoniera** da, baina diferentzia batez, hau da, valoniera erabat desagertua da, ez ordea flamenkera. Orduan, bi hizkuntza nagusiak flamenkera eta frantsesa dira nahiz eta alemaniera ere aipatzen dugun, %0'6 besterik ez izanagatik. Belgikan hiru eskualde daude: Valonia, Flandes eta Brussela azken honeta-

BELGIC-BELGIQUE



ko egoera berezia dugularik.

Populazio aldetik, Belgika osoa eta Flandes, batipat, oso beteta dago jendetza aldetik. Geografikoki Euskal Herria baino txikiagoa izanagatik, jende aldetik gu baino gehiago dira.

Eta hori esanik, Brussela dator; Brussela elebiduna da. (Brussel da bere egiazko izena). Eskubide pertsonalak nagusi direnez hemen, errotulazio mailan gehien hi-tzegiten den hizkuntzan idazten da lehenengo; (hori Helsinkin bezala), eta kasu honetan, frantsez gehiago egiten denez, bada, frantsesa idazten da lehen mailan eta flamenkera bigarrenean.

Beraz, esan daiteke milioe bat biztanle badi-tu Brusselak 250.000 lagun flamendarrak direla. Orduan, lehenengo kontraesan handia: Belgikan flamendarrak nagusi dira baina, hiriburuan frankofonoak. (nahiz eta, Flandes-en kokaturik egon. Ikus mapa.) ; eta bigarrenik: flamendarrak nagusitu dira eta hala ere, hiriburua ez da flamendarra, frankofonoa baizik.

Beste gauza inportante bat: Nederland-era leku askotan hitzegiten da mundu osoan, beraz, ezin da gonbaratu euskararekin. Nederlandera Holandako hizkuntza ofiziala da, hots, nagusia. (Beste hizkuntza bat ere mintzatzen da Holandan, Frisiera deituri-koa, baina bigarren mailakoa da).

Eta badakigu Flandesen hizkuntza ofiziala dela, beraz, flamenkera dialektala diot, status legalik ez duelako. (Adib., Frantziako Westhook(?) partean Belgikatik sartzen den halako boltsa baten antzera, ikus mapan, Lille, Calais, Dunkerke,...ondoan beraz, flamenkeraz hitzegiten zen. Gaur egun ezin da esan hi-tzegiten denik, berrehun mila omen ziren eta orain aldiz ehun milara ez omen dira iristen, beraz, esan daiteke hori bukatzen ari dela. Hortaz aparte, Holandan hizkuntza nagusia da, Flandesen une honetan hizkuntza ofiziala da, gero Hegoafrikan badu ofizialkidetasuna ingelesarekin batera eta horrez gain Indonesian, Malaysian, Sumatran, Java irlan eta Guyana Holandarrean...

Beraz, hizkuntza hau ez da gurea bezalakoa, askoz inportanteagoa baizik, kalkula-tzen da 20 edo 25 milioi direla une honetan nederlandera mintzo direnak.

HISTORIA.

Belgika oso estatu berria da, 1830ean Inglaterrek asmatutako estatu bat, hain zuzen. Duela ehun urte Belgika oso aberatsa zen haltzairuan eta ikatzean, batipat. Orduan, Europako "jauntxoak" ingelesak zirenez erabat bildurtu egin ziren Napoleonek Europa guztia zapaldu zuenean Frantziako iraultzaren ideiak sartuz eta, horrela sortu zuten Belgikako estatu bat eta ez nazioa.

Eta sortuz geroztikako arazorik nagusia flamendarren eta valoiaren arteko istiluak dira nagusi.

Beraz, frantsesei puska bat kendu asmoz sorturikoa da. Belgika beti izan da bi parte, beraz, hizkuntz arazoa Belgikarekin berarekin batera sortu zen. Bestalde, beste zerbait berldurgarriago ere sortu zen; gerla bukatu zenean Napoleonen ondoren, holandarrak harrotu egin ziren Belgika osoan hizkuntza bakarra holandesa jarriaz, orduan, Valonian jarrera antiholandarra hartzeko aprobetxatu zuten, horrela, Belgikako iraultza sortuz, burgesiaren interesak zaintzeko eta aldi berean, Frantziako burgesia frenatzeko asmatu-koa.

Horrela abiatu zen Belgika eta automatikoki hizkuntzaren arazoa planteiatu zitzaizen, Brusselako burgesia frankofonoa zen eta ez zioten kasorik egin arazori, eskubide pertsonalak proposatu baizik. Konstituzio eta legeetan ezer definitu gabe. Ikus daitekeenez, teoria oso ona baina desegokia eraberean. Belgika sortu zeneko garai hartan beraz, Brussela flamenkoa ; 60.000 flamendar eta 30.000 frankofonoz osotua. Hasieratik gaur arte eskubide pertsonalak daude Brusselan eta

halere, ez dute ezertxo ere konpondu. Argi eta garbi dago beraz, flamendarrak nagusitu badira lurralde eskubideak dituzten lekuetan izan dira.

Ez dugu ahanzi behar bestalde, Belgika sortuz geroztik klase nagusia frankofonoa izan dela Bruselan, hots, merkataritza inportanteak, denda nagusiak, e.a., guztiak frankofonoak izan direla orain arte, nahiz eta orain gauzak aldatzen ari diren, zeren eta, une honetan ikatzaren krisia dela eta, askoz ere ekonomia indartsuagoa bait dago Flandesen Valonian baino.

Beraz, flamenkoa gora joan bada, flamendarrek burruka handia egin dutelako izan da. Adibidez, 1886ean txanpon ofizialetan balioa bi hizkuntzatan azaltzea lortu zuten. Ondoren, 1891n, posta seiluetan ere flamenkoa agertzen da lehenengo aldiz, garai honetan ikus daitekeenez gehiengoa izanik ere, ez zuten eskubiderik praktikan, teorian alderantzizkoa bazen ere. 1888an Quoremals(?) izeneko deputatu batek Parlamentuan flamenkeraz hitzegin zuen lehendabizikoz sekulakoa armatuz.

Unibertsitateari dagokionez, garai honetan sortu zen Ganteko Unibertsitatean "flamenko bilakatzeko" mogimendua, eta apezpikuak eta gainontzekoak aurka jarriatik ere, 1899an berdintasuna sortu zen, hau da, legeak, aldizkari ofiziala, e.a., bi hizkuntzetan agertzea alegia. (Eta non gaude gu? Gure txanponetan euskararik agertzen al da? Gerla garaian adib.; peseta española eta peseta vasca -guztia erdaraz, noski- omen ziren eta peseta vasca askoz ere gorago kotizatzen omen zen Europan. Lekutan daude gaurko Gobernu autonomoak!)

Belgikara itzuliaz, 1898an **berdintasuna** lortzen dute, beti ere, eskubide pertsonalen arabera. Baina berehala ohartu ziren flamendarren beherakadaz, hots, legerik gabeko modu hartan galtzen ari zirela, hau da, elebitasuna zela gaitza eta, 1932an lehendabizikoz, hizkuntz legea, ezarri

zuten. Hortarako hiru sailetan zatitu zuten batetik:

- Valonia frantsesez.
- Flandes flamenkeraz.
- Brussela elebidunez, hau da, eskubide pertsonalak nagusituz.

Orduan mugak delimitatu ahal izateko **eskala** horietako bat asmatu zuten. (Adibide bat jartzez gero honela: Herri batean %18 flamendarrak badira eta %82 frankofonoak, eskala honetan oinarrituz, horrek esan nahi du herri horretan lurraldetasunezko eskubideak nagusituko direla, hizkuntza nagusiaren alde, alegia. Beraz, Gobernuak ordaindu beharko dituela eskolak, eta udal zerbitzuetan ere guztiek frantsesez(kasu honetan) funtzionatuko dutela e.a, e.a., edota alderantziz, hau da, % 82a flamendarrak badira guztiak flamenkeraz funtzionatuko du.) 1932ko garai honetako da beraz, lehenengo errolda, eta horretan oinarrituz egin zuten mapa linguistikoa esanez: herri hauek flamendarrak dira, beste hauek valonak eta Brusselantzat aldiz, **eskubide pertsonalak uztea** erabakiz.

Egoera horrela, gerla bukatu ondoren, 1947an berriro ere errolda egin zuten lehenengo legea ezarri zutenetik hamabost urtera, alegia. Hortarako flamendarren artean hizkuntz kontzientzia goraka zihoan (1932-34 Gant-eko Unibertsitatea flamenkeraz jartzeko mogimendu izugarria sortu zen) eta honoko honekin topatu ziren; eskualde flamendarretan sekulako jendetzak egiten zuela euren etxeetan frantsesez eta muga inguruko herri askotan, turistikoetan batipat, jendea frantsesez bizi zela, zergatik? arrazoin ekonomikoengatik, turistak erakartzeko, etab.

Orduan flamendarren erreakzioa Quebec-eko berbera izan zen: hemen elebitasuna da gaitza. Elebitasuna eta eskubide pertsonalen bidez, partida irabazten ari dira. Eta hori gehiagora joan ez zedin, erabaki drastikoa hartu zuten, errolda kentzea, alegia. Horrela, ezagutzen dugun azken errolda

1947koa da.

Gero, errolda bidez ez baina, Gobernu-batzorde baten bidez, inkestak pasatzen hastea eta mugak zehaztea erabaki zuten eta urte luzetan lana sakonki egin ondoren, Belgikako mapa ofiziala agertu zuten 1963an (geroztik aldatu ez dena gainera), ondorioz, Udal administrazioa eta eskola, herri bakoitzari dagokion hizkuntza izango direla adieraziz, beraz, ez dago eskubide pertsonalik. Finlandian 2. mailako irakaskuntza ausartu ez badira ere (Suomidun eskualdean dagoen ABO Unibertsitatea, Finlandiako zaharrenetarikoa hain zuzen, suekoz da) Belgikan LOVAINAn, 1968an jadanik frantsesezko liburuak ateratzen hasi ziren eta gaur egun bi unibertsitate daude, bata, LOEWEN/LOVAINA (flamendarra) eta OTINI frantsesa bestea. Biak dira antzinako LOVAINAko Unibertsitatea, baina zatiturik. GANTekoa ere 1934z geroztik flamendarra da erabat.


Baina beste urrats bat gehiago ere eman zuten 1973an, **entrepresa pribatu mailan sartzeari** alegia. Dekretuz erabaki zuten enpresari eta langilegoaren arteko harremanak edota, entepresetako txosten, aktak, e.a., legez ezartzea. Beraz, udal

administrazioa, eskola eta baita maila pribatuko txostenak, hots, lantegietako iragarkiak edota, eskriturak etab., ez **badau-de lurraldetasunari dagokion hizkuntza idatziak ez dute balio legalik izango**, hortan, Quebec-en ere berdin-berdin jokatzeko dute.

Brusselako mapa begiratzen badugu, ikusiko dugu 19 udalerririk dituela, hauek Flandesko lurraldean daude baina, salbuespen gisa eta hiriburua delako eta egoera linguistikoa kontutan harturik, **eskubide pertsonalak onartu dituzte Bruselarako**, beraz, administrazio guztia elebiduna da.

Orain zer gertatzen da? Flamendarrek askotan frantsesez badakite baina; franko-fonoek ez dute flamenkeraz ikasten edota, ikasi nahi eta orduan, aparato ofizial guztian flamendarrak dira nagusi; Gobernuan, delegazioetan, ekonomian,... lanpostu guztiak flamendarren esku daudela. (Euskal Herrian ere horrelako zerbait egin beharko litzatekeela uste dut). Eta 19 udalerririk hauek beraz, eskubide pertsonalak daudenez, flamendarrek ez dute amore ematen ezta Km. bat ere).

Kasu bitxia zera da: Brussela inguruan sei



Brussela-ko 19 udalerririk

udalerritan frankofonoak dira nagusi eta betikoa gertatzen da; demokraziaren ize-
nean, hemen gehiengoa "defacto" franko-
fonoa da eskubide pertsonalen arabera,
baina lurraldetasunez flamendarrak dire-
nez, flamendarrek ez dute amore eman
nahi. Orduan zer asmatu dute? **erraztasu-
nezko udaletxeak** deiturikoak. Zer esan
nahi duen horrek? Bada, Udaletxe barneko
hizkera flamenkera izango dela baina,
takilatik kanpora eskubide pertsonalak
errespetatuko direla. (Lieja ondoan daude
hauek eta azkenean sei horiek federatu
egin dira **Furon** (?) deritzana osatuz,
4.500 lagun direlarik guztira).


Hitz batez, **Furon** hauetan flamendarrek
nagusitasuna galdu dute. Zergatik? Liejara
eta bere inguruetara joaten dira gehienak
lanera eta egun guztia frantsesez pasatzen
dutenez, etxera itzultzean ere frantsesez
jarraitzen dira eta ondorioz, eskualde fran-
kofonoa bilakatu da. Orduan hemen sortu-
riko jaun (Jose Appart??) parlamentario
batek Gobernu bi aldiz hankaz gora
botatzea lortu du. Zergatik? Askatasunaren
izenean, nahiz eta lurralde frankofonoan
egon, gehiengoaren frankofonotasuna
aldarrikatzen duelako, hori,"inposaketa,

faszismoa, arrazakeria, e.a., " dela esanez
eta flamendarrek aldiz ezetz, flamenkeraz
ez badute bizi behar hanka egin dezatela
handik, eta hori delata, (Martens ??) jna.
erregeekin egon ondoren badirudi konsti-
tuzio aldaketa erabaki duela baina, zertan
aldatuko den? nik ez dakit hori. Dena den,
ez dut uste flamendarrek amore emango
dutenik.

Orduan, hor duzue planteiamentua, zerk
daukan eskubidea; eskualdeak eta hortaz,
eskubide kolektiboak.

Suitzan ere berdin berdin ari dira, badirudi
Belgikan bezalaxe, eskualdeak agintzen
duela, pentsatzen dutela. Une honetan bi
eskola daude Bernan eta Zurichen bestea
frantsesa ikasteko eta, bertan sartzeko
demostratu behar da funtzionarioen seme-
alabak direla eta kanpora joango direla
bisitzera, etab., etab., Guzti hau Suitzan
gertatzen ari da eta ez Tantzanian; hau da,
oso onak dira gauza hauek jakitea gure
konplexuak kentzeko.

Beraz, eta bukatzeko, gonbara ezazue
eskubide linguistiko hauen defentsa, guk
ezagutzen dugun defentsarekin eta esaida-



zue zer den hemengo eskubideen defentsa! Nik ez dut deus esango. Garbi gelditzen da zertan ari garen hemen, ezta?

Beste gauza asko ere gelditu da aipatzeke, hala nola, flamendarrek gaur egun nederlandera ofiziala hartu badute ere, euren hizkuntz normalizazio propioa egiteko eduki zuten tentazioa,... adibidez.

Dena den, nik esango nuke Belgika dela nik ezagutzen dudana soluziorik drastikoen, hemen oso kontenplazio gutxi dago, **lurraldetasuna eta kitto!**


Beraz, labur-bilduz:

Quebec-en holako zerbait zen hasieran, gero atzera egin bazuten ere; erreferenduma galtzean eta porrot egitean, atzera egin zuten eta geroztik asko bigundu dira, oinarri politikorik ez dutelako, hots, proiektu nazionalik ez dutelako.

Eta Finlandiakoa bestea, baina hauek ere ez dira Belgikan bezain erradikalak. Suitza

ere oso gogorra da hizkuntza mailan. Jugoslavia teoria mailan ere oso gogor agertzen da baina, Balkanak tartean direlarik oso zaila da praktikan aplikatzea, hitz batez, guztietan irtenbidea, lurraldetasunezkoa da.

QUEBEC



PERTSONA ETA LURRALDE ESKUBIDEAK JUGOSLAVIAN. EMAITZAK

SARRERA.

Jugoslaviari buruz hitzegiterakoan, lehenengoz esan behar da oso interesgarria dela soziolinguistika eta hizkuntz eskubideen aldetik, eta estatu federala den aldetik ere bai; beraz, nik esango nuke une honetan dagoen interesanteena behar bada Jugoslavia dela.

HISTORIA.

Jugoslavia, sei errepublikek osatzen dute, hau da, sei errepublika federatuk, goitik behera honela: Eslovenia, Kroazia, Serbia, Bosnia, Hertzegovina, Montenegro eta azkenik, Mazedonia. Eta horrez gain,

Serbiaren barnean bi eskualde autonomo daude, ifarraldean Voivodina, eta hegoaldean, Kosovo, Albaniaren ondoan.

HIZKUNTZA.

Hizkuntza aldetik, Eslovenian esloveniera hitzegiten da; Mazedonian mazedoniera eta gainerako guztietan serbo-kroaziera. Beraz, egia esateko, sei errepublika baina, hiru hizkuntza ofizial. (Zentzu honetan, lehenengo inpresioan, Suitzan dagoen egoeraren antzekoa dela dirudi; Suitzan alemaniera, frantsesa eta italiara bait dira hizkuntza ofizialak).

Horrek esan nahi du, serbo-kroaziera % 80 k hitzegiten duela gutxi gora-behera, beraz, Jugoslaviako estatuan hizkuntza



EGUNKARIA 1991-6-15

nagusia dela, ez egoera legaletik, demografikoaren ikuspuntutik baizik. Legez, hiru hizkuntzak berdinak bait dira legearen aurrean.

Hori beraz, hizkuntza ofizial eta nagusien aldetik. Baina Voivodinan badago gutxiengo magyar bat, hungariar bat, eta hori izan da hain zuzen ere, serbbo-kroatek edota, jugoslaviar klasikoek egin duten muntaia, piska bat frenatzeko; Kosovon aldiz, albaniera hitzegiten da, beraz, hizkuntzok koofizialak edota ofizialkideak dira. Honek esan nahi du, Kosovon eta Voivodinan hizkuntza ofiziala serbiera bada ere, albaniera eta magyarra hitzegiten den lekuetan, hizkuntzok ofizialkideak direla.


EGOERA DEMOGRAFIKOA.

Errepublikak guztiok hizkuntz arazoak kontutan harturik egin dira. Hau SESB-en bezala teoriarik, baina ez da guztiz egia. Zergatik? Biarrazoinengatik; lehenengoa, nere ustez Belgrad-ko jendeak beldurra izan du Kosovon albaniar hutsak uztea; hau bait litzateke azken finean arazoa, hau

da, Kosovo guztian albaniarrek baldin badira, hizkuntza eta naziotasuna oso fuertea litzatekeelako eta Voivodinan ere antzeko zerbait egin dute hungariarren kasuan ere, minorian utziaz, hain zuzen ere "bloke" bat egin ez dezaten.

Bigarren arrazoa: Jugoslavian oraindik ere musulmanak oso indartsuak direla. Batez ere Mazedonian, Kosovon eta Montenegron, beraz, hegoaldeko errepublika hiruotan, erlijioak oso indar handia du eta Bosnia-Hertzebovinan baita ere. Honek adierazten du beste leku askotan bezala hizkuntzak ezik, erlijio-arazoak ere jendea zatitzen duela.

Adib.; Bosnia-Hertzebovinan musulmanak 1.600.000 dira beraz, musulmanik gehienak errepublika honetan daude. Eta gauza harrigarria, jendeak ez du bere burua definitzen hizkuntza aldetik, erlijio aldetik baizik. Ikus dezakezuen bezala, zifrarik handiena musulmanena da (1.600.000), gero datoz serbiarrak (1.300.000 lagun) eta azkenik, kroaziarrak (758.000 lagun). Nik uste dut hori dela Europar kasu bakarra. Orduan, hizkuntza aldetik, horrek esan nahi du, hemen zifra hauek beste modu



batera interpretatu beharko liratekeela.

Eta orain beste taula hau piska bat gertuagotik begiratzuz gero, ikusiko dugu hurrengo zutabeen Montenegro eta "montenegri- nos" 400.000 hauek dira nagusi. Hurrengo lerroan Kroazia dator eta ezkerretara "kroaziarrak" (3.400.000); ondoren Mazedonia, (1.200.000) eta piska bat behe- rago, albaniarrek (377.000). Ikus daitekeen- ez, jendea zatitzen saiatu dira. Zergatik ez dituzte albaniar guztiak elkarrekin jar- zen eta ez, batzu Mazedonian eta beste batzu Kosovon?

Garbi dago, arazoa politikoa da. Denak errepublika batean jartzeak, beldurra sor- tzen die. Beraz, talde nazionalak gehiago dira errepublikak baino, guztira sei errepu- blika eta 24 talde nazional bait daude. Eta zer gertatzen da? Gehienetan errepublika- ko talde etniko nagusiak ematen diola izena, nolabait esateko, baina ez beti.

HIZKUNTZON IDAZKERA.

Hizkuntzak ez dira berdin idazten. Serbiera eta Kroaziera antza denez, gauza bera da edo hor nonbait, hizkuntza aldetik oso alde txikia dago, bai fonetika, morfologia eta hiztegi aldetik ere oso dife- rentzia txikia da, baina kroaziera letra latinoz idazten da eta serbiera aldiz, ziri- likoetan; Eslovenian esloveniera latine- raz eta serbiera gehiena zirilikoz, eta baita latineraz ere; Bosnia-Hertze- govinan bietara; Montenegron, Kosovon eta horie- tan aldiz, gehiena zirilikoz; eta albanesa berriz, latin letrez.

Ikus dezakezuen ez, izugarritzko saltsa dago. Bi alfabeto erabiltzen dira, zergatik? Erljio arrazoinengatik, hori baita difere- ntzia azkenean. Ortodoxo izan direnak, hots, Konstantinoplako elizaren menpean egon direnak (serbiarrak,...) elizaren tradi- zioz edo, zirilikoa erabiltzen dute eta Italiako kutsua dutenek aldiz, idazkera latinoan erabiltzen dute Kroaziera,...).

Orduan normalizazio aldetik nahiko zaila egiten zaie serbo-kroatei, bi kode desber- din bait dituzte, bi alfabeto eta horregatik, badirudi desberdintasuna handiagoa dela.

Beste puntu aipagarria, ekonomiarena da. Hemen gertatzen da Iberiar penintsulan gertatzen den fenomeno berbera. Esloveniarrek oso maila ekonomiko han- dia dute eta, Kosovo eta Mazedoniarrek aldiz, oso maila txikia. (Diotenez, nazio- ekoizpen gordina edo P.N.B. deituriko horretan, 6tik Irako diferentzia omen, hau da, 6 bider gorago daude ekonomia mailan esloveniarrek, Kosovokoak edo Mazedoniakoak baino)

Italian ere gauza bera gertatzen da, Milan, Turin eta hauek askoz ere aberatsagoak dira Sizilia baino. Eta estatu espainolean ere gauza berbera; iparraldean eta hegoal- dean diferentziak daude, eta honen arabe- ra, soziolinguistika aldetik ere ondorio garrantzitsua gertatzen da; inmigrazioa eta emigrazioarena, alegia, beraz, izugarritzko arazoa sortzen zaie Eslovenian, eta Serbian eta Kroazian esate baterako, etor- kinekin.

HIZKUNTZ EGOERA.

Esan dugunez, hiru hizkuntza nagusi eta ofizialak, esloveniera, serbokroaziera eta mazedoniera dira, hauei Voivodinako magyarra eta skipetar edo albaniera gehitu behar zaielarik.

Orduan, arazo nahiko zaila; hizkuntza hauek (ikus mapan) eslavoak dira, hots, Txekoslovakiakoa, Errusiakoa eta horien taldekoa; beraz, hemengo arazoa hain zuzen, zera da, nola moztu isoglosak, zeren esloveniarrek kroaziera oso ongi ulertzen bait dute eta kroaziar batek ser- biera,... (eta horrela Bulgariaraino), baina esloveniarrek ez badute ulertzen bulgari- ra, orduan nola moztu behar dira isoglo- sak?

Beraz, hiru hizkuntza hauen normalizazio arazoa honoko hau izango da; "balio al du beste hizkuntza bat egiteak ala ez? Zeren elkar ulertzen badute, merezi ote? Mazedoniera eta bulgariara oso antzekoak dira, (Mazedonia Bulgariako zatia izan baita otomanoen menpean egonik noski, urte askotan askatu ziren arte eta Bulgaria berria egin arte).

Orduan, Tito etorri zenean arazoa hori zen hain zuzen; "Mazedoniako zati horrek Bulgariarekin segi behar zuen ala ez".

Jakina, mazedoniarrek ez zuten Bulgariarekin segi nahi arrazoin historikoak zeudelako batipat, zeren eta, hizkuntza aldetik ez bait zegoen inolako arazorik, elkar ulertzen zutelako eta dute, baina zer gertatu da? azkenean mazedoniarrek beraien errepublika muntatu dutela.

Hortaz, Mazedonian ez zegoen egia esateko, hizkuntza berezirik eta hala ere, Titorekin errepublika sortu zenean (1945ean), mazedoniera hautatu zuten errepublikako hizkuntzatzat, eta mazedoniera hori ez zela izango bulgariara (antza denez, gipuzkera eta bizkaieraren arteko diferentzia baino txikiagoa omen dute elkarren artean). Hala eta guztiz, une honetan bi hizkuntzak antzekoak izanagatik, desberdintzat jotzen dira. Zergatik? Bada, praktikan bakoitza errepublika desberdinak direlako; bata, Jugoslaviako errepublika federatua (Mazedonia), eta Bulgaria bestea, errepublika, besterik gabe. (Kasu hori Europako iparraldean ere gertatu da, Danimarka eta Norvegiako hizkuntzekin, zergatik dira bi hizkuntza eta ez bakarra?, hemen ere ez bait dago arazo linguistikorik, historiko-politikoak baizik.) Beraz, hemen ere arazo berbera dute, arazoa guztiz politikoa da.

Orduan, eta eslovenieraren kasuan, badirudi aspaldidanik zeukatela beren tradizioa eta ez da inoiz planteiatu inorekin joate hori; hemen problema hain zuzen ere serbiarrak eta kroaziarrak batzea izan da (nahiz eta hizkuntza berekoak izan), arra-

zoin historikoak zirela medio oso bereizita bait zeuden. Eta arazoa konpondu baldin bada, Tito, kroaziarra zelako izan da, zeren eta Jugoslaviako federazioa egitea proposatu zuenean, serbiarrek, horregatixe onartu bait zuten, eta alderantziz izan balitz, ez zatekeen horrelakorik gerta, hor indar nagusia serbiarrak direlako. (Hori frogatu ahal izateko, hemen doakizue zenbait datu: Serbia eta Kosovo eta Voivodinan 8 milioe dira, gutxi gora behera, eta Kroazian aldiz, 4'6 milioe). Ikusi dugunez eta arestian aipatu gisa, lau hizkuntzok oso antzekoak dira; guztiz desberdina da beste kasu hau, magyarra eta skipetarrena, alegia.

Hor bereizi behar da, Jugoslavian bereizi den bezala, zer den nazioa; Herri baten zati txiki bat Jugoslaviaren barnean baldin badago eta kanpoan, askoz ere zati handiagoa geratzen bada, hori nazionalitatea izango da Jugoslavian, eta alderantzizko kasuan berriz, hori nazioa izango da. Eta kasuan kasuko, bakoitzari dagokion planteiamendu desberdina egiten dute.

Orduan magyarrak eta skipetarrak edota hungariarrak eta albaniarrek, nahi baldin bada, minoritarioak dira Jugoslavian, hots, nazionalitate gisa kontsideratzen dira, zergatik? albaniar gehienak Albanian eta magyarrak gehienak Hungarian daudelako. Kasu honetan hauek eskubide desberdinak dituzte, ez errepublika mailakoak, nazionalitate mailakoak baizik.

NOLA BEREIZTEN DIRA ESKUBIDEOK JUGOSLAVIAN?

Lehenengo hurbilketan behintzat nahiko erraza dela dirudi. Jugoslavia osoa nahiko konplikatua bada, are gehiago Bosnia-Hertzeegovina, eta azken honen kasua kenduta, beste errepubliketan badago hizkuntza nagusi bat (mapan ikus daitekeen bezala), eta orduan, zein izango den errepublikako hizkuntza ofiziala? bada,

gehiengoaren hizkuntza dena, eta hau lurraldetasunez gainera. Horrek esan nahi du, eskola eta administrazioa eta dena, bertako hizkuntza ofizialean egingo dela.

Baina, Bosnia-Hertzebovinan eta horietan berriz, arazoa gehixeago konplikatzen da minoria desberdinak daudelako. Hain zuzen ere, minoria edo nazionalitate horietako hiritarrak eskubide pertsonalak izango dituztelako.

Hemen Suitzan bezala, lurralde bat ematen saiatzen dira eta errepublika ez bada, distritu mailan definitzen dute, eskualde bat emanaz, eta nazionalitate horietako eskualde horietan eskubide pertsonalak izaten direlarik. (Hemen ohar garrantzitsu bat egin behar da eta zera da: Dakizuenez, Jugoslavia herri autogestionatua da, beraz, hor ez dago goitik behera datorren legedi hesturik, beti ere, oso federala da, autogestioa dela eta). Eta badirudi hemen aipatzen ari garen gauza guzti horiek, printzipio bezala hala direla, baina han behetik gorako printzipioa ere badago aipatzen ez den arren, hori da diferentzia. Adibidez; Lurraldetasunezko eskubideak nagusi direnean, hizkuntza ofiziala zein den argi eta garbi agertzen da, baina eskubide pertsonalak nagusi direnetan, hiritarrak eskatu behar du. Esate baterako, eskolari buruz ez dago guztiz idatzirik, ez bait dago gauza orokorrik, baina badirudi, edozein herritan, 500 lagunetako eskualdea edota, 20 haur hizkuntza berekoak baldin badaude, eskubidea dutela eskola bat eskatzeko eta eskola hori ofiziala izango da, hots, estatuak ordaindua, alegia.

Orduan, nahiz eta lurraldetasunezko eskubideak izan, eskubide pertsonalak aplikatzen dituzte edota, aplikatu daitezke, hala nahi izanez gero.

Beraz, planteiamentu honekin ikus daitekeenez, Belgikan baino moderatuago azaltzen zaizkigu. Belgikan ez dago horrelakorik, lurraldetasunezko eskubideak eta kitto!

Hemen ez, lurraldetasunezko eskubideak daude baina autogestioaren printzipioa dela medio, bigunduta daude, hori batetik eta bestetik, Jugoslavia oso-oso desberdina delako; ofizialki 24 talde etniko daude eta ezin da oso gogor jokatu zeren, errepublika askotan gertatzen den gisa, errepublikako hizkuntza definitua edukiarren eskubide pertsonalak aplikatzen baldin badira minimoki, orduan, elebitasuna, hirueletasuna, eta nahi den guztia sortzen baita.

Nahi baduzue orintxe irakurriko dizuet nola dagoen arazoa Eslovenian, esate baterako, gaztelaniaz dauden parrafo batzu:” La Constitucion eslovena se pronuncia sin almajes. Todos los organos de Estado y los otros órganos, las organizaciones autogestionadas, las comunidades y cada uno de los ciudadanos que desempeñan un función social en el territorio de Eslovenia, actuarán en lengua Eslovena. Art. 212”

Beraz, hor garbi geratzen da arazoa, ikusten duzuen bezala, hori eta gure egoera gonbaratzea benetan,... edo fede txarrez eginga dago edota, ezjakintasunez, ezin baita gonparatu ere egin Euskal Herriko hizkuntz egoera Esloveniakoarekin. Esan behar da Jugoslaviako Konstituzioaren 1. puntua honela hasten dela: “Partiendo del derecho de cada Pueblo a la autodeterminación...”, “comprendido el derecho de secesión, sobre la base de la voluntad..., y de acuerdo con sus aspiraciones históricas..., común, los Pueblos y de las nacionalidades libres e iguales...”, jakina, esango dute hori idatzia egonagatik gero ez dela aplikatzen,... etab. baina, hemen ez dago idatzirik ere, hori da diferentzia.

Beraz, hori da 1º puntua Jugoslaviako Konstituzioan; autodeterminazioa (letra guztiekin aipatzen da teorian bederen), el derecho a secesión..., argi eta garbi!

Orduan, zer gertatu da adibidez, Kosovon? Kosovon gehienak albaniarrak dira eta azkeneko istiluetan (duela bospasei urte) Pristina-ko (hiriburua da) Unibertsitateko

ikasleek Kosovo Errepublika!! eskatzen zuten. Eta Kosovo errepublika egiten baldin bada, teorian behintzat, autodeterminazio eskubidea izango luke. Honen aurrean Belgrad-eko aparatokoak beldurrez daude Kosovo errepublika bilakatuz gero, Albaniarekin tratutan hasi eta azkenean, Albaniarekin elkartuko denaren beldurrez, alegia. Noski, horrek ondorio politikoak izango lituzke, zeren eta, albaniarrek ez bait dira moskobitak, protxinarrak baizik.

(Nahiz eta irakurri dudanez, albaniarrek ez omen dira ez protxinarrak ezta prosobietarrak ere, albaniarrek eta kitto!, Oso abertzaleak nolabait esateko, hango indar nagusia independentzia delarik. Abertzaleak, hango marko hartan ulerturik jakina, musulmanak bait dira. Eta ez da leku bakarra, S.E.S.B-eko hegoaldeko errepublikan ere antzeko arazoa dute, hauxe bait diote: "Marxismo-Leninismoa KORANarekin adostasunera iritsi badaiteke, gu ados geundeke". Eta horrelako zer-bait gertatzen da Albanian ere).

Orain beste puntu txiki batzu ikusiko ditu-

gu. Horietako bat etorkinen arazoa da.

Arestian aipatu bezala, Serbia, Kroazia eta Eslovenian batipat, inmigrazio handia dago, berauekin hizkuntza dakartelarik. Orduan zer gertatzen da? Bada, automatikoki une honetan Belgikako Furon eta hiri horietan, gertatzen den arazo berbera dutela, hau da, eskubiderik bai ote duten eskolarik jartzeko.

Hor soluzioa Suitzaren antzekoa izan da. Belgika edota Suitzan bezala planteiatzen delako arazoa, hots, inmigrazioa dela medio, hizkuntz egoera aldatu baldin bada leku batean, ez dutela agintzen etorkinek, bertako hizkuntz zaharrak baizik. Hori da beraz, printzipioa, nahiz eta gero autogestioa dela bide, generalizatzen zailagoa den, hitz batez, inmigranteen etorkizuna asimilatzea alegia.

Beraz, Jugoslaviari dagokionez eta federazio gisa, ez dago hizkuntza ofizialik (hori azpimarratzea oso inportantea da), hau da, une honetan, Jugoslavian edozein disposizio ofizial hiru hizkuntzetan agertzen da.



Hori izango litzateke Estatu espainolean edozein lege agertzen delarik, gaztelaniaz, katalanera, euskaraz eta gailegoz agertzea bezalaxe.

ELEBITASUNA PRAKTIKAN.

Hizkuntz nagusia **serbokroaziera** da, % 80ek hitzegiten duelarik, beraz, bi errepublika gelditzen dira "maingu" nolabait esateko Eslovenia iparraldean eta Mazedonia hegoaldean, hauek benetan minoritarioak dira eta berauen hizkuntza eskolan ikasi ondoren, nahi duten hizkuntza hautatzeko eskubidea dute, orduan, serbokroaziera izaten da gehienetan eta gainera, oso hizkuntza antzekoak direnez, ez zaie batere zaila egiten. Eta hortaz, serbokroaziera nahiko "defacto" hizkuntz nazionalen bilakatzen da.

Hortaz aparte, LJUBLJANAKO Unibertsitatean duela hamar urte eginiko inkesta batetan jendearentzat bigarren hizkuntza zein ote zen galdetuz eta % 97k ingelesa zela zioten; hirugarren hizkuntza frantsesa % 40'2k; laugarren hizkuntza (gauza harrigarria!) serbokroaziera % 41'5ek eta bostgarren hizkuntza alemaniera % 37'lek.

Dena den, jendeak ez du sinesten inkesta horretan, "protesta" antzekotzat jotzen dutelako. Hori da Finlandian, Suedian etab.etan gertatzen dena: Herri txiki horietan bigarren hizkuntza ez da estatukoa izaten kanpokoa baizik.. Azpimarragarria horixe da guretzat, horrelako gauzak gertatzen direlako. Adib.; Suomin (Finlandia) nahiz eta, 2. hizkuntza nazionala suediera izan,(azken datuen arabera) % 90ek ingelesez ikasten du. Eta Suedian denek suedieraz eginarren, 2. hizkuntzatzat ingelesa dute. Eta hemen ere, 2. hizkuntza ez da serbokroaziera ingelesa baizik.

Orduan horrek esan nahi du pasaporteetan adib., Mazedoniako pasaporteetan lehen-dabiziko hitzak mazedonieraz eta gero ingelesez edo, nahi duten hizkuntzan,

(sekula ez serbokroazieraz), idatzirik agertzen dira. Pentsa ezazue gauzak noraino eramaten dituzten!.

Beste datu interesgarri bat hango errealitateari buruz: **Telebista mailan** nola azaltzen den Ljubljanan; Eslovenian eslovenierazko emisioak % 52; serbokroazierazkoak % 13'5. Beraz, esloveniera nagusitu da benetan hor.

Egunkariaren kasuan, 3 daude eta hiruak eslovenieraz argitaratzen dira.

Irratiak aipatzez gerotan esan behar da 46 irrati daudela; 29 frekuentzia modulatuak eta 17 uhin ertainekoak eta denak esloveniera hutsez. (Non gaude gu?)

Eslovenierari buruz bukatzeko, hona hemen Bagneres-en aipamena: Esloveniera da Esloveniako politikari, ekonomilari eta kultur agintari guztien hizkuntza. (Hemen ez dago bromarik, beraz!)

Azkenik eta bukatzeko, Kosovoz hitz pare bat. Kosovon hizkuntza albaniera da. Albaniera hori eta Albaniako hizkuntza oso antzekoak dira.

Mazedoniarrei bezala, hauei ere hizkuntz arazoa planteiatu zitzaion, hau da, berauen hizkuntza standarra egin ala Albaniakoa hartu. Baina ez dago garbi zergatik, 1968an Albaniako hizkuntza hartu zuten, beren projektu separatista baztertuz. Harrezkeroz, orain Kosovon hitzegiten den hizkuntza ofiziala eta Albanian hitzegiten dena, gauza bera dira. (Flandesen bezala gertatu zaie, Holandakoa hartu bait dute, azkenean).

Eta hori oso inportantea da, zeren ez baita ahaztu behar Albania ez dela orbitakoa, guztiz marxista-leninista ortodoxoa edo,... eta besteak aldiz, autogestionarioak, hots, oso diferenteak, eta hala eta guztiz ere, arazo horiez gain, **BAT** egin dute (hau azpimarratzea oso inportantea da).

Beraz, orain Jugoslavian gusto guztietako soluzioak daude. Mazedonia hain zuzen, soluzio separatista bat izan da; "Bulgariarekin hautsi" eta beren hizkuntza propioa muntatzea, alegia. Eta Kosovon aldiz, ez. Hogei urtez egon ondoren plan horretan, gero (zergatia ez dakigularik) atzera jo zuten eta une honetan Albania eta Kosovo gauza bera da. Horrek esan nahi du, prentsa mailan, irrati-telebistan eta irakasleak ere Tirana-tik etor daitezke-ela Kosovora. Guzti honek,-Belgrad-tik ikusita noski,- arazo politikoa planteiatzen dio, "horiek zertara datoz hona?" galde-tzen dutelarik.

Nahi baduzue irakurriko dizuet 171. artiku-lua: " En virtud de la Constitución y la ley, los individuos pertenecientes a las nacio-nalidades tienen el derecho a servirse de su propia lengua y escritura en el ejercicio de sus derechos y deberes , así como en los procedimientos ante los órganos estata-les y las organizaciones que ejercen fun-ciones públicas".

Beraz, hau eta Suomiko kasua oso antze-koa da, estatuaren aurrean, hots, **justiziaren aurrean eskubide pertsona-lak daude, lurraldetasunezko eskubide-ak ere badaude, baina, Belgika edota Suitzan baino maila moderatuagoan.**

Dena dela, hona hemen beste zati bat bukatzeko: " En el campo de la Educación toda ella se imparte en esloveno, Enseñanza Básica, Secundaria y Especiales, Universitaria y para adultos" . Eta hori esloveniera hizkuntza txikia dela-rik.

PERTSONA ETA LURRALDE ESKUBIDEAK

IRLANDAN. EMAITZAK

EGOERA.

Gaur Irlandari buruz hitzegingo dugu, beraien hitzetan EIRE deitzen denaz alegia.


Irlandan dakizuenez bi hizkuntza daude eta biak dira ofizialak; ingelesa eta gaelikoa, nahiz eta azken izen hau beraiei asko gustatu ez. Zergatik? Gaeliko hizkuntza Eskozian ere hitzegiten delako eta, nahiago dute irlandesa deitzea. Halere, linguistikan gaelikoa deritza eta are gehiago, euren buruari GAEL deitzen diote. Eta hau esanik bego horrela.

Hizkuntza zeltikoa da (ikus mapa), indo-europearraren adar bat. Hizkuntza zeltikoak aspaldi batean hitzegiten ziren Europako zati handi batean, hortik dator hain zuzen zeltiberoak Espainian, Frantziako galesak ere zeltikoak ziren eta Suitzan eta Alpeetako zati batean ere zeltikoak ziren.

Beraz, guzti hau erromatarren garaian galdu zen, hau da, Kristoren garaiko mende haietan. Eta mende hauetan gelditu zaizkien adarrak oso txikiak dira, hala nola, batetik, Britainiako BREIZH hizkuntza, Kornualles deiturikoa bestea, gero Cymru edota Galeskoa eta, Alba edota Eskozia ondoko uharte txiki bat Man deiturikoa eta azkenik, Eire edo Irlandakoa. Beraz, horiek dira herri zeltikoak.

Hizkuntza aldetik beti gauza bera gertatzen da leku guztietan, hots, egingo bage-nu halako azpi-sailkapena, horrela geldituko litzateke: BREIZH, KORNUALLES, eta CYMRU, hauek talde bat osatuko lukete Hegoaldeko Zeltikoa deiturikoa eta bestea, EIREkoa izango litzateke edota, Iparraldeko Zeltikoa.

The Gaels



The Gaels 1971

HIZKUNTZ EGOERA.

Hemengo egoera oso dramatikoa da, ikusiko dugun bezala. Azkeneko KORNIKOek (hau da Kornuallesen) XVIII mendean hitzegiten omen zuten. Cymruera da ondoan dagoen hizkuntza zeltikoa une honetan, Galesko hizkuntza, beraz. Eta Eskoziakoaz aldiz, inork ez daki zer esan une honetan; diotenez, uharteetan oraindik ere hitzegiten eta irakurtzen dutela, baina denak elebidunak dira eta arrantzale zaharrak izateaz gain, egoera ekonomiko eskasekoak, eta % lek dakiela ateratzen denez, Eskoziakoa bukatutzat eman daiteke.

Man-en ere gaelikoa hitzegiten zuten azkenekoen grabazioak duela 40 urte egitakoak dira eta orain jada, ez da hitzegiten.

Irlandan ere gaelikoa bukatzen ari da eta Britainian % 12 gelditzen omen dira breizhiera hitzegiten dutenak.

EIRE-ko (IRLANDA) HIZKUNTZ EGOERA.

Irlandan beraz, gaelikoa eta ingelesa ditugu 1937 geroztik ofizialkideak.

1922an Independentzia lortu zutenean automatikoki gaelikoa izendatu zuten hizkuntz ofizialtzat, baina, 1937an ikusirik ez zihoala gauza hain ongi, bi hizkuntzak ofizialkideak izendatu zituzten eta orain azkenean, **gaelikoa da lehenengo hizkuntza nazionala**, baina hala ere, ez dute ezer konpondu, arazoa ez baita definizioarena, jokabide mailakoa baizik.

Hori hobeto ulertzeko zifra batzu ikusiko ditugu: Irlandak lau zati nagusi ditu; ULSTER, LEINSTER (LAIGHIN), CONNACHT eta MUNSTER (AN MUMHA).

Ipar Irlandak 13.600 Km². ditu eta Hego Irlandak aldiz, 70.300 Km²., beraz, Euskal

Herria lau bider gehiago hedaturaz, zabalera.

Ipar Irlanda Ulsterko zati bat da, (bederatziz zatiz osaturik bait dago), eta horietatik seik osatzen duten Ulster ofiziala; horiek dira ofizialki Britainia Handiaren menpean daudenak, nahiz eta beste hiru zatiak ere Ulster osatzen duten.

Populazio aldetik, 1.498.000 dira Ulsterren bizi direnak, beraz, hauxe litzateke lehenengo konstatazio garrantzitsu bat; askoz ere jende gehiago dago Ulsterren Irlanda askatuan baino, hau da, % 40 biztanle km². bakoitzeko Ulsterren eta % 10 biztanle Irlanda askatuan.

Diferentzia izugarria da, eta ekonomikoki ere horrelako zerbait nabaritzen da; populazio handia bizi den lekua aberatsa da eta jende gutxien bizi dena, aldiz, oso pobrea.

Eta hori aspalditik datorren fenomeno da. 1840ean izan zen gosete famatu hura zela medio, Irlandako mendebaldekoek batipat, ihes egin zuten gehienek Ameriketara eta hain zuzen gaelikoak ziren, hortaz, gosetea zela medio Irlanda, askoz ere ingelesago bilakatu zen.

Beraz, ingelesez hitzegiten den parte aberatsena da, eta mendebaldekoa berriz, hizkuntza gorde duena pobreena eta katolikoa.

Orduan, hori esan ondoren, goazen ikustera hizkuntza aldetik, nola dagoen; Bi data besterik ez ditugu emango, 1891 batetik, eta 1921 (Irlandaren askatasuneko) bestetik; eta goazen ikustera zenbat jendek hitzegiten zuten gaelikoz, zenbat jende zen elebiduna, eta zenbat jende zen ingelesez hutsa, hara hemen hurrenez-hurren: (0), (% 7) eta (% 93), ordenaren arabera.

Beraz, hori jada, 1º konstatazio garrantzitsua hain zuzen ere, 1891ean hasia zen mogimendua jada gogortzen, zeren eta, 1893an sortu bait zen "Liga Zeltika" deiturikoa, eta hortik aurrera sortuko da, I.R.A izango zena. Beraz, joan den mende

bukaeran gauzak gogortzen hasi ziren, 1921ean askatasuna lortu zuten arte. Orduan ikus daitekeenez, gaeliko hutsa hitzegiten zuen jenderik apenas zegoen jadanik, joan den mende bukaeran alegia. Elebidunak gu baino gutxiago ziren (Euskal Herrian, % 23-24 !!) eta ingeles hutsak aldiz, ia gehienak. Beraz, askatasuna lortu zutenerako ia ez zegoen elebakarrik (% 4`5 besterik ez).

(Jakina, Israel-en gutxiago ziren, esango du norbaitek! Baina israeldarren arazoa oso gauza desberdina da, juduak herri espeziala da, kategoria aldetik, erlijio arazoa dago,... juduen kasua berezia da, hori ezin da ukatu eta Israelgo kasuak ez du balio guretzako).

Eta geroztik mapetan begiratzen badugu ikus dezakegu geroz eta estuagotzen joan direla, jende hori zaharra, pobrea eta erlijio aldetik katolikoak... Ez dugu esango hori akats bat denik baina, gaelikoa beti jende horrekin,(txirotasunarekin, atzera-koitasunarekin...), loturik egon da eta soziologikoki zeresan handia du irlandesentzat, non gaelikoa beti jende pobreen eta leku atzeratuetan mintzatzen den hizkuntza bezala ikusiko bait dute.

Eta adibide triste baina famatu bat aipatzez gero bada, James JOYCE idazle famatuak ingelesez idaztez aparte, irlandesari buruz hitzegiterakoan beti adarra jotzeko izaten zen. (Horretan Pio BAROJA bezala zen, zeren eta euskaraz idatzi zutenean, aski duzue ikustea konturatzeko analfabetoa zela euskalduna izanik!) Beno bada, garai hartan idazle gehienak horrelakoak ziren.

Gauzak horrela 1921ean askatasuna lortu zutenean gaelikoa hizkuntza ofiziala izendatu eta eskolan sartu zuten, pentsatuz gaelikoa irakatsiz jendeak abertzaletasunagatik ikasi eta gero hitzegingo zuela. Jakina, jendeak ikasi zuen (eta du) gaelikoa baina latina bezala, asignatura gisa. Orduan estatistikekin zer gertatzen da? Badirudi goraka dihoala (asignaturan bila-

katzean Batxileratoko titulua lortzeko 1973 arte nahi eta nahiezkoa zen gaelikozko diplona edukitzea eta jendeak hori aprobatauatik ez zuen hitzegiten kalean) baina ez da egia, hizkuntz-diploma aldetik neur-tuta izan zelako.

ORAINGO HIZKUNTZ EGOERA.

Azkeneko datuen arabera, ofizialki eta teorikoki gaelikoz hitzegiten diren zazpi eskualde daude gutxi gora behera, 55.000 lagunez osatuak eta hauei erantsi beharko genieke, diplomaz gaelikoz omen dakitenak.

(LIGA ZELTIKAKo idazkaria Donostian izan zenean eta galdetu ondoren, esan zigun une honetan 30.000 edo izango direla benetan familia bidez jaso eta natural samar hitzegiten dutenak eta, Irlandan gaur egun 3.000.000 baldin badira, bada, % lek, egiten duela esan daiteke).

Ikus daitekeenez, ez doa inondik ere goraka, beheraka baizik. Eginahalak eginagatik ere, ingelesak gaelikoa asimilatu egin du .

Hala nola; Eskualde linguistiko hauetako populazioa finkotzea erabaki zuten, hortarako industria txikiak muntatuz lanpostuak sortarazteko, etab., baina hizkuntza esijentzia ez zenez, industriak muntatu ziren baina ingelesa zabaltzeko tresna bezala eta ez gaelikoaren alde, hasieran pentsatu bezala.

Beste xehetasun bat aipatzekotan adibidez; askatasuna lortu zutenean hango abertzale zenbaitek pentsatu zuen eskualde linguistiko bat muntatzea Dublin (Baile Atha Cliath) inguruan, eta 1927an edo, 122 familia joan ziren beren borondatez bertan bizitzera, eskualde gaeliko artifizial bat muntatzeko asmoz, baina, zer gertatu zaie? ingelesak asimilatu egin dituela, ezertxo ere lortu gabe.

Eskolari buruz ere zerbait esan dezakegu;

Askatasuna lortu zutenean, irlandesek pentsatu zuten soluzioa Eskolan zegoela, eta Eskolan bakarrik ia-ia, zeren eta, beste gauzetan ez bait zuten hainbesteko ahaleginik egin.

Beraz, gaeliko hutsezko eskolak jarri ziren eta hemengo B ereduoen antzekoak beste batzu, eta esan daiteke 1940 arte bi eskola moetak ugalduz eta goraka joan zirela, baina data horiez gero, beheraka hasi eta gaur egun likidaziora doaz, orain ikusiko dugun bezala, askatasuna lortu eta lehenengo hamarkadan, hau da:

1930ean—	228 eskola,	% 4
1940ean—	623 eskola,	% 12 (punturik goren)
1950ean	523 eskola,	% 11
1960ean	420 eskola,	% 9
1970ean	251 eskola,	% 6
1979an	160 eskola,	% 3

Hortaz aparte, 6 Irakasle-Eskola ere muntatu ziren eta bazirudien gauzak gorantz joango zirela eta indar handiz hasi baziren ere, gerla denboran batipat, beheruntz abiatu ziren, likidaziora iritsi arte. Argi eta garbi utzi behar baita, gelditzen diren 160 eskola horietatik, 137 eskola eskualde gaeliko horietan kokaturik daudela, hots, hizkuntzak oraindik bizirik dirauen lekuetan alegia. Beraz, gaelikoa hitzegiten ez den lekuetan 23 eskola besterik ez daude; hor ikusten da zernolako errehabilitazio borondatea dagoen, batere ez!

Beste maila bateko zifrak ikusiko ditugu orain; Bi asignatura gaelikoz ematen dituzten eskoletakoak, esate baterako:

1937an;	% 28'8 (hau da gehiengoa)
1947an;	% 25'5
1957an;	% 16'5
1967an;	% 9
1977an;	% 4'9

Beraz, gure "B ereduoen" antzeko eskolak ere likidatze bidean doaz, hots, desagertzera.

Lizeo mailan ere egoera hau da:

1960-6lean;	523 eskoletatik	236 eskoletan
1968-69an;	598	132
1978-79an;	530	22

Hemen ere fenomeno berbera agertzen zaigu, "Post Primario" hauetan ere likidazioa gainean dutela.

Beno, nik uste dut datu hauekin gauzak argi baino argiago ikus daitezkeela ezta? Irlandako hizkuntza likidatze dago eta esan daiteke horrenak egin duela.

Baita ere hemen aipagarriak dira agertu ziren bi dekretu garrantzitsu. Batetik, 1968an sortu zen **Hizkuntz Askatasunaren aldeko mugimendua**. Esan beharrik ez dago anglofonoek ateratakoa zela; inposaketaren aurka..., askatasuna utzi behar da, ez da inposatu behar hizkuntza etab. ..., esanez.

Dublin inguruan sorturiko mugimendu honek berehala ekarri zuen ondorio politiko bat: 1973ko Otsailean erabaki zen Batxilerato titulua lortzeko ordurarte beharrezkoa zen gaelikozko Diploma kentzea. Zergatik? Inposaketa omen. eta taktikoki ez zela ona, kontrako jarrerak sortarazten zituenaren aitzakiaz, libertatea utzi behar zela, eta harrezkerok, ikus dezakegun ondorioa dugu, askatasunaren izenean,...

Bestetik, beste Dekretua piska bat berantago atera zuten; 1974ko Urrian eta hona zer zioen: **Estatuko funtzionario izateko eskatzen zen gaelikoa ezagutzen zuenaren Diploma, ez zela beharrezkoa eta hau ere kendu egin zuten arrazoin berberaz.**

Orduan, bi dekretu hauek onartu zituztenetik, oraindik ere azkarrago gertatu dira galeraren fenomenoak. Ez da egia inposaketa hori kendu eta gauzak hobetu direnik.


Bestalde, eskualde gaeliko horietan 91 lanpostu ofizial edo funtzionario postuak ziren eta horietatik, 31 lagunek besterik ez zekiten gaelikoz,...

Telebista mailan ere % 4'5 erabiltzen omen,...

Hizkuntzaren batasun aldetik ere zerbait aipatu beharko dugu, Ulster, Connacht eta Munster-en, hau da, hiru zati hauetan, ugarte batzu egon dira orain arte eta ez zuten lortu, edota ez ziren ausartu, **batasuna** egiterik. Ia orain arte hirutua egon delarik. Eta gaur egun duten **batua**, hain zuzen ere, hizkuntza **galduen zegoen eskualdekoa** hartu dute (hori detaile bezala).

Beraz, Irlandan benetan (eta tristuraz diot hau), nik uste dut likidatuta dagoela; zeharo porrot egin dutela maila guztietan gainera, ez dute lortu Irlanda baturik, ez ekonomikoki, ez linguistikoki eta ezta sozialismo aldetik ere.

Zer ez dugun egin behar ikasteko eredugarri izan dakigula gutxiarik!!



EUSKARAREN EGOERA.

Gai honi buruz luzaz mintza gintezke eta ahal dugun heinean bederen, hemengo egoera nola planteiatzen zaigun ikusten saiatuko gara. Horretarako ideia txiki batzu aztertuko ditugu.

Lehenik, **NORMALIZAZIO**an zertan gauden ikusiko dugu.

Hauge(?)ren diagramaren arabera, lau urrats ematen dira edozein herritako hizkuntza normalizazioan; Hautaketa, Kodaketa, Osaketa eta Gizarte-onarpena.

(Baita ere beste modu batetan adierazteko, korpus a (hautaketa eta kodaketa) deitzen den zatiari buruzko plangintza eta status a (osaketa eta gizarte-onarpena) deitzen den zatiari buruzko plangintza.)

Eta eskema honen arabera, holaxe gaude. Nire ustez eta oro har, gauzak nahiko ondo egiten ditugu hemen.

25-30 urte inguru da jadanik, **Euskara Batuaren Oinarria**-ren hautaketa egin

zela eta hasierako istiluak gainditu ondoren, hautaketa hori onartutzat jo daiteke.

Euskaltzaindiak proposaturik Hautaketa (MITXELENAREN gidaritzapean beti ere) euskalkien nahasketa antzeko bat izan zen (erdi nafarrera, erdi gipuzkera, erdi lapurtera) zeren eta, ortografia eta aditz kontutan lapurtera edo nafarrera dela bait dirudi, eta beste gauza askotan aldiz gipuzkera. Fase hau beraz, esan daiteke eginda dagoela.

Kodaketa: Fase honek lau pausu ditu:

Ortografia eta Ortofonia

Deklinabidea

Aditza

Hitz zaharren prestaera edo zehazketa.

ORTOGRAFIAREN kasuan onartuta dago (nahiz eta oraindik ere zenbaitek onartzen ez duen hitz berri en kasua, adib.)

DEKLINABIDEA ere erabakita eta onartuta dago, gipuzkoarrok bereizten ez dugun arren.



Caro Baroja, *Los pueblos del Norte*, 46. orrialdeko maparen zatia

ADITZAREN kasuan, bazirudien sekulako arazo zaila zela, baina zailtasun guztiekin ere onartua izan da.

HITZ ZAHARREN PRESTAERA. Hitz zaharrak askotan forma asko hartzen ditu, adib.; ireki, iriki,... Horri buruz Euskaltzaindiak 1968an hartu zuen bere erabakia, MITXELENAK proposaturiko hiztegi hartaz. Hori beraz, **batuta agertzen da.**

Une honetan, KODAKETA osatzeko falta den zatirik nagusia, Ortofonia -rena da. Ortofonia, esan nahi baita, idatzita dagoen hori nola irakurri behar den.

Euskaltzaindiak ez du hortaz ezertxo ere esan, eta izugarrizko arazoak ditugu, baina larrienak hiru aipa daitezke:

- fonemen balio fonetikoa
- fonema elkarketa
- azentua

Alde batetik, fonemen balio fonetikoa, hau da, fonemak grafian sinbolo desberdinetan agertzen dira eta hortaz, zerbait erabaki beharra, alegia.

Fonema elkarketa-rena izango litzateke, hots, "sandi" deitzen den fenomenoarena, alegia, adib., Z + D ; Z + B , etab., horrelako fonemak elkartzen direnean zer gertatzen den erabakitzea behin betirako.

Eta azkenik, azentua ri buruzko zatia, edota hitz batez, ortofonia guztia falta da; aho hizkera z ez dago ezertxo ere erabakita eta presa handiko arazoa denez, Euskaltzaindiak lan honetan lehen baitlehen sartu behar duela iruditzen zait.

Gero, osaketa lana dator, hiztegi gintza nolabait esateko. Alor berriak irabazteko hizkuntza prestatu egin behar da, sekula erabili ez diren gaietan batipat, ekonomian, politikan, administrazioan, etab.

Eta hiztegi gintzan ere baditugu jadanik espezializatuak, UZEIk eginak, adib.

Beraz, **corpusaren** lanketa nahiko aurreratu dagoela uste dut, nahiz eta, hemen ere nahiko zalantzak ditugun. Adib., "reaktore" ala "erreaktore" izan behar ote luke gure tradizioari jarraituz? Eta "K" hori esan behar ote dugu?

Hitz zaharretan eta iparraldeko hitz askotan ez da esaten, hala nola, "erreatore", "traturra", "azio",... Eta horrelako adibide asko dago, ikus dezakezuen ez ortofonia mailan oraindik arazo handiak daude.

Hain zuzen, batzuren ustez, eta hitz kultoak bezala irakurri behar direla, "erreaktore", "akzio",... baina ni ez nago hain seguru zeren eta, gure hizkuntza den baino biziago balitz "K" gabe jarriko genuke, ez bait genuke esango.

Bestalde, LEIZARRAGAK duela 500 urte jadanik, "REGE" idazten zuen eta, guk aldiz, "ERREGE" idazten dugu eta kasu honetan ere horrela idaztea, populatxerismoa ote?

Beno orduan, UZEIkoen grafia onartzen badugu eta badirudi onartu egin beharko dugula, arazoa **nola esan behar den** horretan datza, hots, ortofonia mailan.

Eta azkenik, laugarren fasea, hau da, onarpen soziala gelditzen da. Hemen esan daiteke oraindik hasteke dagoela, hots, praktikan gauza horiek herrikoitu gabe daudela, zeren eta, euskara batua nahiko onartuta badago ere, maila elementalean baita, eta orain gure kezka da onartu den hori sozializatzea, alegia.

Beste puntua zera da, Ezaguera eta erabilpenaren binomioa zertan dagoen.

(Adibidez Lezon, 198leko Lezoko erroldaren arabera, 5.174 biztanle ditu; hauetatik 3.000 edota, % 60 erdaldunak direla, eta erabilpena bikoteetan jakin nahi izanez gero, % 16a baino gutxiago ateratzen da. Beno, Lezon % 40arekin, nahiz eta minorian egon nahiko euskalduna da.)

Beraz, gauzak horrela, Hauge-ren ziklo horren arabera eta logikaren arabera, prozesua ongi doa, baina soziologikoki oso egoera txarrean gaude.

Orduan, ezaguera eta erabilpena horiek izanik, Euskal Herrian une honetan, **euskara beheraka doa, dudarik gabe**, ez delako erabiltzen; beheraka joateak esan nahi du, jendeak hitzak ez dituela erabiltzen edota, ahaztu egiten zaizkiola..., euskal joskerak galdu egiten direla edota, interferentzia izugarriak daudela maila guztietan, fonologian, hiztegian e.a.. Hortaz, holako egoera batean ez da zaila asmatzea zein den goruntz doan hizkuntza, eta euskararen egoera ona dela pentsatzea, astakeria izango litzateke.

EUSKARAREKIKO HIZKUNTZ ESKUBIDE ETA LEGE EGOERA.

Legedia ez da inportanteena baina komenigarria nolabait esateko, marko bat dela.

Hemen lege nagusiak bi dira, Baskongadetan "Ley de normalización del Euskera" eta "Ley Básica de normalización del uso del Euskera" Nafarroan. Eskubide pertsonaletan oinarrituak biak teorikoki, baina praktikan badakigu zer gertatzen den. Zergatik? Bada, hain zuzen, 6. artikulua horretan honela dio: "Se reconoce... y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan,..". Eta harrigarria bada ere, tribunalak arrazoia eman zigun guri puntu horretan baina, bada beste zati bat atzera bota dutena, eta 6. artikulua horretako 2 atala da eta honela dio; En caso de no haber acuerdo entre las partes, se utilizará la lengua que disponga la persona que haya promovido el expediente o procedimiento sin perjuicio de las partes a ser informadas en la lengua que deseen".

Beno bada, puntu hau ez dute onartu, arrazoia ez administrazioari, baizik eta pertsonari ematen zitzaizolako.

Azkenik, oso garbi azaltzen da beraien politika 8. puntuko 3.atalean, **lurraldeta-**

suna aipatzen denean; "No obstante lo preceptuado anteriormente, los poderes públicos podrán hacer uso exclusivo del Euskara para el ámbito de la Administración Local, cuando en razón de la determinación sociolingüística del municipio no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos". Udaletxe mailan, hots, Udalerrri mailan proposatzen zen halako lurraldetasuna ere inpugnatu egin dute.

Hortaz, eskubide pertsonalak (nolabait esateko) daude, eta badakigu beste lurraldeetan ikusi ahal izan dugunez, **eskubide pertsonalek ez dute inon eta inolaz ere hizkuntz arazorik konpondu.**

Eta Nafarroari dagokionez, hiru eskualdetan zatitu dute, batetik, zona vascofona, "zona mixta", eta "zona no vascofona".

Bestetik, "euskal zonaldea" deitzen duten hori Nafarroako iparraldeak osatzen du; eta Baskongadetan bezalaxe eskubide pertsonalek osatzen dute teorikoki, planteiamendu berbera egiten dute, eta hori ez dute inpugnatu, badakitelako Garraldan adib., euskaraz esijitzea udaletxean alferrikakoa izan litekeela.

Gero, "zona mixta" deiturikoa dator. Hemen aginte publikoen eskuetan gelditzen da dena. Eta zonalde honetan Iruñea dago, beraz, Iruñean ez dago eskubide pertsonalik ere, 16. artikuluan ikus dezakegunez: "En la zona mixta, la incorporación del vascuence a la enseñanza, se llevará a cabo de forma gradual progresiva y suficiente, mediante la creación de los centros de líneas donde se imparta la enseñanza en Vascuence, para los que lo soliciten".

Eta Udaletxeari dagokionez, honela dio: "Todos los ciudadanos, tienen derecho a usar tanto el vascuence como el castellano para dirigirse a las administraciones públicas de Navarra". Ez du esaten "y a ser atendido".

Beraz, eta askoz okerrago den idatzia dator geroago, 19. artikuluan: " Se reconoce a los ciudadanos el derecho de dirigirse en vascuence a las administraciones públicas de Navarra; éstas podrán requerir a los interesados la traducción al castellano, o utilizar los servicios de traducción previstos en el artículo 8.bis" .

Orduan, euskaraz egin daiteke eta legekoa da gainera, baina beraiek itzulpena eskatu ere eska dezakete, horixe da egoera.

Bestalde, urrats historiko bat eman da Nafarroan (dudarik ez!) eta zera da; Euskara ere hizkuntza ofizialtzat onartzea eta hori oso inportantea da sikologikoki, Baskongadetako arazoa bakarra ez dela, alegia.


Gauzak horrela, ikus dezakezuenetz, egoera oso txarra da, hots, euskal eskualdeetan eskubide pertsonal mailara ere iristen ez delako eta are gutxiago beste eskualdeetan. Horrek esan nahi du, **Euskarak lege horren barnean ez duela irtenbiderik**

(Irlandako kasuaren arabera baina gurea). Legea bakarrik ez da aski behetik gorako indarrik ez badago.

Oso beharrezkoak dire lege-markoak, dirua, telebista, (eta nahi duzuen guztia), baina askoz ere inportanteagoa da herri mogimendua, hau gabetanik jai dugu.

Beraz, eta bukatzeko, nik esango nuke soluziobidea izango litzatekeela alor berrien normalizazioa sortzea, esan nahi baita, euskara hizkuntza beharrezko eta askikoa izatea alor berritan. Adib., herriko dispentsarioa hartu eta euskara normalizatzea bertan, hau da, ekintza guztietan euskararen egoera normalizatzea alegia. Nik uste, horretan egin behar dugula burruka.

Alde batetik, goitik beherako mogimendu horiek bultzatu eta indartu behar dira (eta hori politiko ofizialen bidez egin behar da, dudarik gabe), eta bestalde, behetik gorako mogimendu honen beharra ezinbestekoa dela iruditzen zait. Horra nire eritzia.






Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.

PUBLIS



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ



IRAKASLE ELKARTEA

Plz. Amezketa 12 - 8.a F

Tfnoa: 45 51 00 - 22 Donostia